



Aste Santua

**II. Igartza
bekako
liburuak kalean**



**Azoka berezia
Ordizian
apirilaren 18an**



**Sasietaren
2000. urteko
txostena**



KALITATEA

Argazkiz argazki, zuzenketak banaka-banaka FOTOETXE- FUJIFILM en errebelatu kontrolpean.

AUKERA

MARKETING ZERBITZUAK

Txindoki kalea, 2 - solairuarte
ORDIZIA

Tel. 943 805 578

Faxa 943 805 791

e-posta: aukera@airtel.net

AUKERA

ZURE ENPRESA HOBETU NAHI AL DUZU?

- ✓ Aztertu ezazu Marketing Mix-a (prezioa, produktua, banaketa, komunikazioa...)
- ✓ Ekintzen arteko koordinaketa hobetu.
- ✓ Merkatu aldaketak eta bilakaerak aurreikusi itzazu.
- ✓ Kontsumitzailearen beharrak aurreikusi.
- ✓ Iritzi publikoa ezagutu ezazu.
- ✓ Edozein aukerako baliabideak hobetu eta egokitu.

GOIEKI-ren laguntzaz sortutako enpresa

ESKANTZEN DIREN ZERBITZUAK:

- Marketing planak
- Merkatu azterketak
- Iritzi publikoari egindako inkestak
- Kudeaketa komertzialeko planak
- Bezeroaren iritziaren gaineko planak
- Komunikazio planak
- Formakuntza planak
- Formakuntza ikastaroak
- ISO 9001-2000
- Produktu nahiz zerbitzuen komertzializazioa

ORMAIZTEGIKO JUBILATUEN EGOITZAKO TABERNAREN USTIAPENA OPOSIZIO LEHIAKETARA ATERA DA

Baldintzak eta bete beharreko orriak
Udaletxeko bulegoan, 8:00 etatik 14:00etara

Eskaera onarpen epea
Apirilak 16



Non zer

3 HAMABOSTALDIAN

NABARMEN: II. Igartza sariketako uzta

7 AHOLKUA: Abereak.

8 KATE MOTZEAN: Jabier Elorza.

9: Greba Orokorreko deia.

10: Arte batxilergoa Beasainen.

11: Azoka berezia Ordizian, apirilaren 18an.

12-13: Sasieta Mankomunitatearen 2000. urteko txostena.

14-15: Aste Santuko Prozesioak Seguran.

17-27 KRONIKAK

ZALDIBIA 17, LEGORRETA 18, ORDIZIA 19, ZEGAMA 20, LAZKAO 21, SEGURA 22, ATAUN 23, IDIAZABAL 24, MUTILOA 24, GABIRIA 25, BEASAIN 26.


30-31: AGENDA

32-33: ZAHARRAK BERRI:

Lazkaoko monjen komentaren historia

30: FOTO ZAHARRA:

segurarrak.



Xabier Etxeberriaren eta Jasone Osororen eskutik II. Igartza bekako uzta

Martxoaren 23an, goizean Donostian eta iluntzean Beasainen, aurkeztu ziren II. Igartza literatur sorkuntzako bekaren ondorioz idatzi diren bi liburuak. Xabier Etxeberria zarautzarrak irabazi zuen II. Igartza beka eta Jasone Osoro elgoibartarrari akzesita eman zioten. Urtebete beranduago, Elkar argitaletxeak kaleratu ditu liburuak.

Xabier Etxeberriak 'Egun denak ez dira berdin' liburuak argitaratu du. Bi istorio ezberdin kontatzen ditu. Lehenengoan Tasio Ardanez krimen bat ikertzen saiatuko da. Bigarrenetan, Miren izeneko tabernariaren istorioa kontatuko da, amodiozko gora-beheretan murgilduta. Biek dena den, bat egingo dute. Detektibe kutsuko eleberria egin du.

Jasone Osorok, berriz, ipuinak eta poesiak uztartu ditu. Hamazazpi ipuin daude, mutil lagunak neskagunaren ezezkua onartu ezin eta neska, bahitu,

bortxatu eta hiltzen duen epe horretan sortuak. Sentimentu ezberdinak biltzen dira guztietan.

Xabier Mendiguren Elizegi Elkarlaneak argitaletxeko arduraduna eta epaimahaikidea gustura azaldu da lanen emaitzarekin. Atseginak eta irakurterrezak omen dira. GOIERRITARRAko lehiaren zozketatuko ditugu bi liburuak.

Oinarri berriak

IV. Igartza literatur sorkuntzako bekaren oinarriak kalean dira dagoeneko. Ekainaren 30erako aurkeztu behar dira proiektuak edo laginak. Idazle gazteentzako beka da Beasaingo Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin antolatzen duena. Aurten gainera, bada berrikuntza nagusi bat: hain zuzen ere, bekaren diru kopurua bikoiztu egin dute. Aurten, irabazleak, 1.000.0000 pezetako beka jasoko du.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Inko Mujika, Laida Oiarbide, Txindoki-Alkartasuna Institutua, EKA.

Azaleko argazkia: Gurutze Irizar

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Bilkura ixila Ordizian, Gesto por la Pazek deituta

Martxoaren 30ean, arratseko 8etan, Gesto por la Paz taldeak deituta, bilkura ixila egin zen Ordizian, 'No a la violencia de persecución. Elkarrekin askatasunaren alde' lelopean. EAJ, EA, IU-EB eta PSE-EEk atxekimendua azaldu zuten bilkura-rekin.

Julio Herrerosen aurkako ustezko atentatua

Aurreko alean kaleratu genuen, martxoaren 9ko goizaldean lehergailu batek eztanda egin zuela Beasaingo Urbialde plaza eta Nekolalde kalearen artean, eta oraindik ere zehaztu gabe zegoela noren edo zeren atentatua izan zela. Itxura denez, eta PSE-EEko Jose Luis Elorzak Euskadi Irratiko tertulia batean zehaztu zuenez, Julio Herreros, Beasaingo PPko zinegotziaren aurkakoa izan zen atentatua. Dena den, ETArek azkenengo agirian, ez da atentatu honi buruzko adierazpenik azaltzen.

CAF

Beasaingo CAF enpresak, Madril-Bartzelona arteko Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektuan parte hartuko du, Siemens enpresaren bidez. Espainiako Sustapen Ministerioak eta Renfek martxoaren 24an jakinarazi zuten AHTeko linea horretako trenak Siemens enpresa alemaniarrek eta Talgo-Adtranz kontsorzio espainiar-alemaniarrek egingo dituztela. Kontratu garrantzitsu horretatik kanpo gelditu da, beraz, CAF enpresak Alston frantziarrarekin osatutako taldearen eskaintza. Dena den, CAFek akordio bat omen du Siemensenekin, nahiz eta oraindik zehazteko egon. Madril-Sevilla lineak trenetan parte hartu zuen CAFek.

EHNE: "Hiltegiak zentralizatu nahi dituzte"

Administrazioak hiltegiak zentralizatzeko hartu dituen neurriak direla eta, EHNE sindikatuak bilera irekiak antolatu ditu. "Abeltzainak oso kezkatuta gaude neurri honekin. Izan ere, hiltegien zentralizazioarekin prozesuaren kontrola galduko dugu baserritarrok. Sektorean horrenbeste eskandalo gertatzen ari diren une honexetan bertan, aurrera egin beharrean atzera egiteko arriskuan gaude berriz ere: ondorio latzak dakartzake modu industrialean produzitzeak", dio EHNEk. Goierrri dagokion bilera, Ordizian egingo da, apirilaren 9an, arratseko 8etan, Barrena Kultur etxean.



Kanpainako lema.

'Egin zaitez Atzegizale!'

Goierriko Atzegi (Adimen urriko pertsonen laguntzareko Gipuzkoako Elkarte) ere martxoaren 20az geroztik, sensibilizazio eta oroimen kanpainan murgildurik dabil. 'Non dago muga? Atzegizaleak ez dauden lekuan' da aurtengo kanpainaren leloa.

Atzegizalearen (laguntzailea) irudia potentziazten da kanpainan. "Zer da Atzegizalea izatea? Bizitzako momentu ezberdinetan "laguntzeko" prest egotea. Guztiok egunez egun "lagunduko" gaituen inguru bat behar baldin badugu, "beraiek" ere bai, batez ere denda, supermerkatu batean ordainketa egiterakoan zailtasuna duenean, edo, eguneroko beste aktibitate batean".

Goierrin 89 adimen urriko daude Atzegin elkartuta. Sendiartekoen elkarte ere beraien esku dago, jaiotzeko momentutik, bizitzako etapa ezberdinetan lagunduz: ikastetxean, lanean, etxebizitzan, eta abar.

"Beraz, elkartasuna adierazi behar diegu "beraiei", urte guztian, existitzen direnez hor baitaude, gure inguruko, gure bizitzako parte izanez, baina gure oroimena bereziagoa izan behar da 2001eko kanpaina honetan. Egin zaitez Atzegizale!". 943 423942 telefono zenbakira dei dezakezu".



Rafa Diez CAFen

Martxoaren 28an, Rafa Diez LABeko idazkari nagusiak hitzaldia eman zuen CAFen, 'Euskal Herriko langileok burujabetza eta bakea behar dugu' lelopean. "Amarru-estatutuak" gainditu eta burujabetasunaren aldeko prozesu bat abiatzeko "aukera historikoa" sortu dela nabarmendu zuen.



Korrika Goierriin

Apirilaren 2an pasatu zen Korrika 12 Goierritik. Aurreikusitako ordua baino beranduxeago iritsi bazen ere, harrera beroa egin zitzaion Korrikari.

Patxi Zubizarreta

Ordiziako idazleak 'Magalik badaki' liburua argitaratu du Anaya-Haritz argitaletxearekin. Magali, batere segurtasunik gabeko neska bakartia da. Bere gurasoek etxetik kanpo egiten dute lan eta ahizpa Carlota, aldiz, New Yorken bizi da. Ilustrazioek garrantzia handia daukate liburuan.



Gipuzkoako bertso txapelketa aurrera

Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak, Joxe Munduate ataundarrak eta Aitor Sarriegi beasaindarrak bigarren fasera pasatzeko txartela lortu dute Gipuzkoako bertsolari txapelketan.

Kirolak



Xabier Imaz

Eskuz Banakako Pilota txapelketatik kanpo gelditu da Xabier Imaz segurarra. Lehen kanporaketa, Hirigoien aurka, gaititu baldin bazuen ere, (Hirigoien lesionatu egin zen) bigarren arerioari, sasoi betean dagoen Fernando Goñiri ezin zion irabazi. 22-11 galdu zuen.

Peio Gibelalde

Realeko lehendakari gai aurkeztu zen Beasaingo Peio Gibelalde martxoaren 22, baina ez zuen bere helburua bete. Astiazarnek eskuratu zuen lehendakari zarako txartela.



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA



IBAI ONDO



AROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN


Aloska

EDERGINTZA
USAINDEGIA

Laser

bidezko

depilazioa



Domingo Unanue Plaza, 2
94388 24 10
ORDIZIA



Aralar, une erabakiorrenetan maldan behera

Azken asteetan Aralar ildoak askapen prozesuaren aurka-ko saio likidazionista baten protagonista izaten ari da. Aralar ildoak mahai nazionalari, eta EHko kidego osoari, luzatu dion proposamen-tranpak ez du hitzik, traizioa-rena ez bada.

Aralargo ordezkariak, instituzio baskongaduetan normaltasunez partehartzeko beraien iritzia, txantaiaren bitartez EHren baitan inposatu nahi izan dute; nahiz eta jakin Gasteizgo instituzio ukatzaile eta zatikatzaileetatik irteteko erabakia herri eta auzoetako batzar irekietan adostua izan dela.

EHTik, Aralar ildoaren txantai proposamena eta erabiltzen dituzten joku zikinak biziki salatzen ditugu. Haste-ko Aralar, Ezker Abertzalea-

ren baitan, eszizio bat probokatze-ko sortu eta garatu dela-ko, korrante baten jardura baino alderdi politiko batena duelako eta PNV alderdi autonomistaren estrategian ari delako, Ezker Abertzalea higuatu eta agortutako marko politiko-juridiko hau mantenez jarraitzeko asmoz.

Proposamen-tranpa honen aurrean gure hautua argia da. Haste-ko Gasteizko instituzioetan burutu beharreko lan instituzionala bere horretan garatzea, EHko kidego osoak batzar irekietan adostu dugu eta.

Bestetik eztabaida faltsu eta paralizanteetatik irten, eta ditugun indar politiko eta instituzional guztiak Euskal Herri osoan abian jarri dugun prozesu soberanistaren jarri-ko ditugu.

Horretarako deitzen dugu datorren apirilaren 10ean Greba eta mobilizazio egun orokorra, eta klabe berbere-

tan aurkeztu gara J.J. Ibarretxe alderdi faxista espainiarrei eskaini dien hauteskundeetara.

Gasteizko Legebiltzarrean ahalik eta parlamentari soberanista gehien lortu asmoz. Indar politiko eta instituzional guzti hau Udalbiltzak gidaturiko prozesu eratzailan jarri.

Axular Barandiaran
(Goierriko Euskal Herritarrok)

Oharra

Goierritarran argitaratze-ko gutun bakoitzaren gehienezko luzera, makinazko 30 lerro izango da. Laburtu behar izanez gero, Zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

Eskutitzarekin batera, idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko da.

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76 ABALTZISKETA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

Apirilak 10, greba orokorra



Eskualdeko Greba Batzordea

Erasoak

Estatu espainiarra zein frantziarra, konturatu dira Euskal Herrian martxan jarri den eraikuntza nazional prozesuaren xedea zein den; hots, euskaldunok inori baimenik eskatu gabe gure buruaren jabe izaten hastea. Konturatu dira hainbat urteetan zehar, herri honekin amaitzeko hartu dituzten hainbat neurrik (lurralde zatiketa, Gernikako esatututu eta Amejoramentua asimilazio tresnatzat...), ez dutela herri honek duen burujabetza nahia itzali, eta aitzitik, gaur egun sekula baino garbiago dugula burujabetzarako bidea zein den. Horrela soilik ulertu dezakegu azken aldian estatuak martxan jarri duen Euskal Herriaren aurkako gurutza; bi era ezberdinetan datozkigu eraso hauek: Batek inposaketa mailan datozenak (Humanitateen dekretua, Nafarroan euskararekin egiten ari direna...), zeinek herri honek bizirauteko ezinbestekotzat dituen arloetan Euskal Herriaren existentzia ukatzen duten. Eta bestetik maila errepresiboan; lehen aipatu dugun eraikuntza nazionalen prozesuan motore lana egiten dutenen aurka: Hala nola, Ekinen aurkako operazioa, Euskal karnetaren alde ari ziren Bai Euskal Herriari plataformaren aurkakoa, Haikaren aurkakoa...

Eraso guzti hauen helburua bikoitza da; batetik, gaur egun martxan jarria dugun eraikuntza nazionalen prozesua baldintzatu eta pikutara bidaltzea eta bestetik, Herri honekin behin betiko amaitzea.

Eraso berrien aurreikuspena

Jakin berri dugu, Garzon jaunak, Ardi Beltza aldizkaria itxi eta Ekin ilegalizatzea erabaki duela. Bestalde badakigu momentu honetan Estatuak mahai gainean duen beste aukeretako bat, Herri Bata-suna ilegalizatzea dela; ikusi besterik ez dago jadanik prentsa espainiarrean ze nolako kriminalizazio prozesua jarri duten martxan (Haikaren aurkako operazioaren ondoren adibidez). Argi daukagu estatuak Espainiako batasuna mantentzearen, komenigarriena deritzona egingo duela, inongo eskrupulorik gabe gainera.

Eragile sozial, politiko eta sindikalen jarrera

Lotsagarria deritzogu EAJ/PNVk eta ELAk mantentzen duten jarrera; hitz politikak esaten ditu batzuetan, baina egin, ezertxo ere ez; gehienetan isilik geratzen dira; eta beste batzuetan; Haikaren kasua lekuko, zenbait buruzagi esanguratsuk estatua txalotzen dute. Momentu

honetan, bere eserlekuak mantentzean besterik ez dute pentsatzen; ez dute ausdiazirik benetan estatuari aurre egiteko.

Bestalde txalogarria deritzogu hainbat eragile sozialek euren sektoreko erasoei aurre egiteko konpromezua hartu izana: Irakaskuntzako hainbat eragilek "Guk geure eskola" lemapean abenduan eginiko manifestaldia edo Nafarroan Oinarriak mantendu dinamika adibidez.

Dena den, aurretik esan bezala, eraso guzti hauek izatera integrala dutela uste dugu guk, hau da, estrategia eta helburu bakar baten baitan burutzen dira eraso guzti hauek, ez dira eraso isolatuak, eta eman beharreko erantzuna ere horrela izan behar duela pentsatzen dugu. Euskal Herriaren eskubidea irakaskuntza sistema propioa garatzeko, Euskal Herriaren eskubidea bere lurralde osoan euskaraz bizitzeko, Euskal Herriaren eskubidea lan harremanetarako esparru propioa izateko, Euskal Herriaren eskubidea bere buruaren jabe izateko.

Erantzuna

Gure ustez, erantzunik egokiena burujabetzarako bidean, marko politiko hau gaindituz, urrats praktikoak ematean datza. Horretarako Ezker Abertzaleak aspalditxotik egin die hainbat eragile sozial, politiko eta sindikalei trantsizio akordio baten proposamena, zeinetan Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko behar dituen instituzio eta beste hainbat baliabide sortzeko proposamena egiten den, gaur egun ditugunak sortu beharreko hoienez zerbitzura ipiniaz. Akordio proposamen honen aurrean jarrera ezkorra izan dute gainontzeko indar

politiko abertzaleek, estatuei aurre egiteko duten ausardia falta agerian utziz. Guk gure aldetik burujabetzaren bidean aurrera egiteko asmo sendoa dugu, horretarako nahiko indar herri honetan badaudela uste dugulako, eta bide horretan aurrera egin ahala gehiago bilduko zaizkigulako.

Dena den, estatuen jarrera hain erasokorra den honetan, erantzun indartsu baten beharra ikusten dugu. Duela pare bat hilabete, ausnarketa guzti hauek egitearekin batera dinamika berri bat jarri geuen martxan; ematen ari diren neurri gabeko eraso guzti hauen aurrean Aski da!!! esateko garaia iritsi dela deritzogu. Horrela hilabete hauetan 'Aski da burujabetza da ba-kea' lemapean hainbat ekimen burutu ditugu; eta apirilaren 10erako greba eta mobilizazio orokor deialdia luzatu dugu. Ematen ari zaizkigun kolpe guztien aurrean erantzun potente bat emateko eta Euskal Herrian burujabetzaren alde gauden herritar oro kalera irten eta estatuei alferrik dabilzala adierazteko, ezingo dutela Herri honekin amaitu eta errepresio eta eraso guztien gainetik euskaldunok gure herriaren jabe izateko hautua egin dugula adierazteko.

Ekintzak

Apirilak 7: Kotxe karabanak: 10:30ean, Ataun San Gregoriotik; 16:00etan Ordiziatik. 17:30ean, Donostian manifestazioa.

Apirilak 8: Herri guztietan mobilizazioak.

Apirilak 9: 18:30ean, kotxe karabana Ataun San Gregoriotik. 22:00etan, herri guztietan manifestazio zaratasuak. Enpresetan itxialdiak.

Apirilak 10: Manifestazioak: 10:00etan Beasainen, 12:30ean Ordizian, 19:00etan Beasainen. Sektore eta agente sozial ezberdinetan atxekimenduak bildu dira.

Desagertzeko arriskuan dauden animaliak

Animalia bitxiekin eta desagertzeko arriskuan daudene-kin egiten den negozioa, 100.000 milioikoa da mundu osoan.

Munduan mafia asko daude. Eta animaliak hegoaldeko herrietan lau txanponen truke erosi eta gero, herri aberatsetan saltzen dituzte, prezioak izugarri garestituta.

Animalia horietako asko, etxean izateko saltzen dituzte, baita bestelako helburuekin ere, esaterako: etxea "apaintzeko", ustez sendatzeko, eta laborategietan esperimentuak egiteko.

Japoniak, Txinak, Estatu Batuek eta Europako Elkarreko herriek erosten dituzte babesturiko animalia eta landareri- gehien. Asiako herriek bolia, larruak, primateak eta orkideak eskatzen dituzte. Eta Europako herriek, berriz, hegaztiak eta zur bitxiak.

Salerosketa horiek mundu osoan egiten dira eta arriskuan jartzen dituzte 37.000 animalia eta landare bitxi.

Zenbait produktu lortzeko, animalia ugari hiltzen dira. Esaterako, katamotz- edo ozelote-larruzko beroki bat egiteko, 20 eta 30 animalia hil behar dira.

Errinozeronte asko ere hiltzen dituzte, adarren hautsa lortzeko.

Espezie bizien trafikoa eginez gero, espezie horietako asko hil egiten dira. Ehi- zan eta garraioan ere animalia askok galtzen baitute bizi- a.

Nazioarteko erakundeek legeak eta arauak onartuta dauzkate, animalia eta landare bitxien salerosketak eragotzi eta debekatzeko.

Guk ere zertxobait egin beharko genuke borroka horren alde. Animalia edo produktu bitxiren bat erosi baino lehen, honako galderak egin behar dizkiogu gure buruari:

- ✓ Espezie hori hona ekartzean, kalterik egingo ote zaion espezieari berari edota espeziearen ekosistemari.
- ✓ Gure herrian askatu edo ihes eginez gero, arriskutsua

izango litzatekeen.

- ✓ Eta azkenik, ea ongi dagoen atsegin hutsagatik animalien askatasuna eragozte- a, edota animalia leku arrotz eta desagoki batera ekartzea.

Batzuek uste dute animalia bitxi guztiak gure etxean bizitzera ohitzeko gai direla. Baina hori gezurra da. Gainera, espezie bitxiak apain- garri gisa erabiltzea ontzat ematen dutenek, naturareki- ko begirune eskasa baino ez dute erakusten.

Egin dezagun zerbait sa- lerosketa horiek eragozteko. Gure esku dagoen neurrik onena, espezie bitxien sa- lerosketetan ez parte hartzea da.

- ✓ Muzin egin oroigarri tu- ristiko bitxiei.
- ✓ Ez onartu arriskuan dau- den espezieekin egindako sendagairik.
- ✓ Aukeratu betiko anima- liak etxean izateko.

EKA

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa

Euskara txukunean

Etxera nijo

Ondo esanda al dago **etxera ni- jo**? Bai, baina Goierriko hizke- ran dago ondo, hau da **nijo** fa- miliarteko edo lagunarteko hiz- keran erabiltzekoa da eta ez de- zagula gal horrelakorik!

Baina euskara batuan, hiz- kera formalean edo zainduan **etxera noa**. Bien arteko espa- rruak garbi izan behar ditugu, adibidez, telebistan, irratian... kazetariak **etxera noa** esango du, baina kazetari horrek berak lagunartean lasai asko **etxera nijo**. Horrela da, eta horrela izan behar du.

Egingo al dugu jolas? Jolas egingo al dugu?

Bietatik zein da zuzena? Bada, biak dira zuzenak eta egokiak, eta antzekoak. Gainera ez dira gutxi, adibidez: **Ondo lo egin dugu/Ondo egin dugu lo;** **Guztiok parte hartu behar dugu/Guztiok hartu behar dutu parte.**

Maizpide Euskaltegia



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK

Beasain

Mota guztietako eta adin guztien- tzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44
ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Lehiaketa

Galdera

Nork idatzi du 'Egun guztiak ez dira berdin' liburua?

Erantzuna apirilaren 23rako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

Saria

II. Igartza sariketako beka irabazi zuen 'Egun denak ez dira berdin' liburua eta Goierritarreko kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Apirilaren 2an.

Irabazleak:

Saioa Arkonada
(Zegama)

Zer aurki dezakegu Ka.Ko-n?

Bi atal ezberdin: alde batetik, kamiseta eta horrelako jantzi eta osagaiak, eta kamiseten estanzazioa; beste aldetik, fotokopiak koloretan eta txuri-beltzean, plastifikazioak, enkoaderazioak, argazki ukituak, fax zerbitzua, eta abar.

Bezeroek zer eskatzen dute gehiena?

Kamisetak, bai estanzatzeko (festetarako, despedidatarako, oparitzeko) eta bestelakoak (hauetan aukera handia daukagu), eta fotokopiak koloretan.

Argazki zaharrak berritzean zek ematen du lanik gehien?

Pazientzia handiarekin hartu behar da argazkiak berritzeko.

Noren edo zeren argazkia berrituko zenuke?

Posible izango balitz, gaur egun gizarteak ematen digun irudi negargarria aldatu edo berrituko nuke.

Noren argazkia edo zein logotipo jarriko zenuke kamiseta batean?

Aurreko gaian adierazitakoa gertatuko balitz, horren irudi bat.

Logotipo edo sorkuntza baterako zer hartu behar da kontuan?

Beste gauza batzuen tartean, garrantzizkoa da jakitea bezeroak zer eskaintzen duen, eta zeinentzat.

Kolore bat:

Kolore guztiak gustatzen zaizkit, zeren bakoitza bere testuinguruan zoragarria izan daiteke.

Zaletasun bat:

Kirola egin eta musika.

Oporretarako leku bat:

Kenia.

Bizitzeko leku bat:

Goierri.

Pelikula bat:

Gizon lasaia.

Amets bat:

Ahal dudana ondoena bizitzea.



Jabier Elorza

Ka-Ko

AMEBI



Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9

LAZKAO

GERTU

aholkularitza

TXEkin programarako
homologatutako erakundea



Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

© 616 921 502

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

Txindoki-Alkartasuna Institutuan

Aukera berria Beasainen: arte batxilergoa

LOGSE legeak batxilergoa lau modalitate nagusitan antolatzen du: Natur eta Osasun Zientzien batxilergoa, Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoa, Teknologia batxilergoa eta Arteen batxilergoa. Lehen hirurak eskualde guztietan daude hedatuak. Aitzitik, Arteen batxilergoaren eskaintza Eibar, Irun eta Donostiara mugaturik egon da gaurdaino. Honen berri eman diezagun Txindoki-Alkartasuna BHlko, Beasaingo institutuko zuzendaria den Josu Agirrerengana jo dugu.

- Zergatik erabaki da modalitate hau eskaintzea Goierrin?

- Bi arrazoi erabili ditu Hezkuntza Sailak eskaintza hau Goierrin ezartzekoan. Lehenik eta behin, jakin bagenekien gure bailaran bazela modalitate honen eskaera eta horren lekuko dira egunero-egunero Donostiako Usandizaga institutura joaten diren bailarako ikasleak. Bigarrenez, ikasleari hurbiltasuna eskaini nahi zaio.

- Goierrin eta Beasainen hain zuzen ere...

- Eskaintza eremu geografiko jakin bati egina izaki, Tolosatik Legazpirainokoari, erdi-gunea bilatu nahi izan da. Gainera, Txindoki-Alkartasuna institutua batxilergoetan espezializatutako institutua da eta horrek ere Beasain-

goaren ezartzearen alde jokatu du.

- Zer bide irekitzen ditu batxilergo artistikoak?

- Bere helburu nagusia arteetarako joera duten ikasleei ikasketa-aukerak eskaintzea da. Bi ibilbide nagusi aurki daitezke modalitate honetan: batetik, pintura, eskultura, zeramika...; bestetik, ikus-entzutezkoen eta diseinuaren mundua.

- Batxilergo artistikoa gainditu ondoren zer?

- Edozein batxilergo amaitu ondoren gertatzen den moduan bi aukera daude:

1. Goi Mailako Lanbide Heziketa: Irudia, Ikus-entzutezko Ekoizpena, Diseinu eta Ekoizpen Editoriala, Altzari Diseinua, Arropa Diseinua,...
2. Unibertsitateko ikasketak, hautapropa (selektibitatea) gainditu ondoren: Arte Ederak, Ikus-entzutezko Komunikazioa, Industri Diseinuko Injinerutza Teknikoa, Publizitatea,...

- Artistikoa eman ahal izateko zer egin behar izan duzue?

- Lehen hiruhilekoan egitasmoa gauzatu du lan-ekipo batek: eskainiko diren jakintza-



Modalitateko jakintzagaiak Batxilergoa 1 Batxilergoa 2

- Marrazketa artistikoa I
- Marrazketa teknikoa
- Bolumena
- Adierazpen teknika grafiko-plastikoak
- Marrazketa artistikoa II
- Irudia
- Diseinuaren oinarriak
- Artearen Historia

gaiak, egin beharko diren egokitzapen-lanak, beharko diren baliabideak, irakasleak,... Aitortu beharrean nago Donostiako Usandizaga institutuak eta Irungo Pio Baroja institutuak hasiera-hasieratik eman diguten laguntza osoa.

- Obra edo leku-egokitza-penik eskatzen du honen ezarpenak?

- Lehenengo ikasturterako bi leku egokituko ditugu. Lehenengoan, ia 200 metro karratu-

tan, bolumena eta adierazpen grafiko-plastikoa landuko dira. Bigarrenean, argazki laborategia sortuko da.

- Zein baliabide izango dituzue hau aurrera eramateko?

- Hitz gutxitan aipatzea oso zaila den arren, aipagarrienak honako hauek izan daitezke: kabaileak, insoladora eta muntai mahaiak, torkuluak, inprimaketarako mahaiak, argazki laborategiko materiala,...

- Besterik erantsi nahi zenuke?

- Gure asmoa honetan guztian oso garbia izan da, gure bailarako gazteei batxilergoetan dauden aukera guztiak eskaintzea ikastetxe berean, batxilergoei dagokienez erreferentzia garbia izatea bailara osorako. Guk, geure aldetik, beste modalitateekin egiten ari garen moduan, maila akademiko jasoa, bikaina bermatzeko asmoa dugu honetan ere.

Eta amaitzeko, arten inguruan interesa duten ikasleak animatu nahi nituzke etxe ondoan izango duten aukera berri honi hel diezaioten.



Sukar aftosa dela eta, ez da abererik izango

Apirilaren 18an, artzantzari lotutako azoka berezia Ordizian

Artzantzari lotutako azoka izaten da Ordizian, apirileko azoka berezia. Ardiak mendira eramateko garaia izaten denez, transhumantzia berreskuratu izan da aurten arte. Ardi mozketak ere izaten ziren, erakusketak eta enkanteak ere bai. Aurten, sukara aftosaren eraginez jarri den debekuaren ondorioz, ez da ardi eta aharirik izango Ordizian. Dena den, ordiziarrek ahalegin berezia eginez, apirilaren 18an, izango da azoka berezia.

Goizeko 9etan hasiko da apirilaren 18an, apirilean izaten den Ordiziako azoka berezia. Artzantzarekin zerikusi zuzena izan ohi duen azoka izaten da. Aurten, Europan aberreen artean sortutako arazoa-

ren aurrean, sukara aftosa dela eta, abererik ezin da azoketara eraman. Beraz, azoka berezi hau moldatu beharrean izan dira ordiziarrek. Orain, iraileko azoka bereziarekin zer gertatuko ote denaren beldur dira ordiziarrek.

Transhumantziarik ez da izango aurten; ardi mozketarik ere ez; eta ahari lehiaketa eta enkante edo subastarik ere ez.

Gazta berria

Idiazabal Gazta berriaren denboraldi ofizialki hasiko da apirilaren 18an. Oraindik ordua erabat zehaztu gabe baldin badago ere, goizeko 11etan edo 12etan izango dela aurrera genezake. Udaltxean izango da ekitaldia.

Gainerako ikuskizun gehienak, Garagartza plazan izango dira. Ordiziako Gazta txapelketa irabazi dutenen artzainen gazten salmenta, gazta zaharraren dastaketa,

Ez da ardirik izango Ordizian.



mamiaren dastaketa, mamia nola egiten den erakutsiko da... Ekitaldi guztiak, artzantzari lotutakok izango dira. Gazta nola egiten den ikusteko aukera ere izango da. Era zaharrean eta era modernoan egiten arituko dira artzainak.

Goierriko produktuak salgai egongo dira egun honetan Ordizian.

Asteazkenero Ordiziako azokako protagonistak izaten diren baserriarren artean ere izango da lehiaketa.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

ZUHAIZKI S. A. L. ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa

20491 LEABURU

Tfnoa.: 943 67 36 11

Faxa: 943 67 36 55



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz
eta beroak


● Ogitarkeoak

Sasieta Mankomunitatearen urteko txostena

Goierriko hondakinen bilakaera 2000. urtean

Iazko urtea aurrekoen antzekoa izan da. Berriz ere hondakinen kantitatea hazi egin da: %4. Gaikako bilketan (edukiontzia berdea, horia, urdina eta beste bilketak) berreskuratu ditugun kantitateak asko igo dira. Hazkunde honen ondorioz %20ko berreskuraketa lortu dugu. Hau da, 100 kilotik 20 ez dira zabortegira bota. Zaborren hazkundearen arrazoi nagusia etxeetako zaborretan datza.

Gaur egun, gutako bakoitzak 440 kilogramo sortzen ditu urtean zehar. Edo beste modura batera esanda, kilo 1 eta 200 gr egunero. Iaz sortu genuen zabor guztiarekin 26 igerileku olinpiko bete genitzake. Aurreko urtean baino igerileku bat gehiago. Europako batazbestea, pertsonako eta urteko 425-450 kilokoa da. Beraz momentu honetan batazbesteko honen barruan gaude. Europako Ingurugiro Agentziaren arabera, ekonomia eta zaborrak zuzenki lotuta daude eta joera honek hamaikada honetan jarraituko du. Gure mankomunitatean hain zuzen ere joera hau ari da betetzen eta zabor gehien sortzen duten herrialdeen mailara ailegatzen ari gara.



Hondakinen Estatuko planarekiko konparaketa

Iazko urtearen hasieran "Hondakinen Plan Nazionala" jarri zen indarrean (PNRU). Iazko txostenean Sasieta mankomunitateko egoera aztertzen zen PNRU honekiko. Ikus dezagun nola gauden gaur egun:

- Birziklaketa helburu guztiak betetzen ditugu, edukiontzia horikoa izan ezik. Baina ez gaude oso urrutik eta ez da arazorik izango hau lortzeko.
- Sortutako zaborra 441 kg/bizt/urte baino gutxiago izan beharko da 2002. urterako. Gaur egun 440 kg/bizt/urte sortzen ditugu, beraz ez da erraza izango helburu hau lortzea, joera gainera gorantzakoa baita.
- Beste helburu bat edukiontzia kopuruari dagokio. Mila biztanle baino gehiagoko herri guztiek izan beharko dute gaikako bilketa. Sasietan herri guztiek, txikienak ere, badute gaikako bilketa.
- Bostehun biztanleko beira-edukiontzia bat egon beharko da gutxienez. Goierri erraz betetzen du baldintza hori, 275 biztanleko baitaukagu beira-edukiontzia bat.
- Berdina eskatzen da paper eta ontzien edukiontzientzat. Sasietan ez dago inongo arazorik kasu horietan ere 275 biztanleko edukiontzia bat baitaukagu.

Dena den gogoratu behar da zabor hauen zati garrantzitsu bat gaikako bilketako edukiontzietara joan dela. Aurreko adibidera bueltatuz, 26 igerilekuetatik 5 berreskuratu egin dira birziklatzeko eta beste 21ak Sasieta zabortegira iritsi dira. Hau da, iaz gutako bakoitzak sortu zituen 440 kilotatik 81 berreskuratu egin ziren eta beste 359-ak zabortegira bota ziren. 2000. urtean birziklapenerako material gehiago jaso da baina zaborra asko igo denez, portzioan bi hazkundeak antzekoak izan dira, beraz birziklapen maila mantendu egin da.

Europako beste herrialde guztietan, Alemanian izan ezik, zaborrak gehitu egin da.

Zaborra gehituz

Duela 5 urte 313 kilo sortzen genituen gaurko 440 kiloen aldean, hau da, 127 kilotako gehikuntza. Lehengo adibidea erabiliz 18 igerilekuetatik 26ra igarotzea izango litzateke 5 urte hauetan. Birziklapena bikoiztu egin da urte hauetan, baina hobekuntza nabarmen hori ez da nahikoa izan zaborren hazkundearekin orekatzeko, beraz azkenerako zabor gehiago iristen ari da zabortegira. Birziklapen portzentaia %20 ingurukoa da, onenen parekoak, bai estatu mailan, baita Europa mailan.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



ere. Zabor guztia ezin da birziklatu; gehienez ere %45a birziklatu daiteke, konpostaia eta errausketa energi aprobe-txamenduarekin kanpo uzten baditugu.

Gaikako bilketa

Ordiziak birziklatzen du gehien. Iaz, ordiziar bakoitzak 73 kilo sailkatu zituen ondoren birziklatuak izateko. Sasieta mankomunitateko batzbestekoa 59 kilotan dago. Bai, beira, ontzi edo paper bilketan herri hau izan da emaitza onenak lortu dituen. Ondoren Beasain dator, eta atzetik hirugarren talde batean beste herri handienak, hau da, Legazpi, Lazkao edo Urretxu. Herri txikien artean Itsasondo eta Legorreta aipatu behar ditugu, oso emaitza onak lortu baitituzte.

Pertsonako 440 kilo zabor sortzen dugu urtean

● Beira bilketa

Azkeneko urtetan bezala beira izan da herritarrek gehiena birziklatu duten materiala. Gaur egun etxeetan sartzen dugunaren %70a birziklatzen dugu. Kantitate hau etxeetan biltzen dena da bakarrik. Honetaz gain beira sektorearen enpresei ere biltzen zaie, beraz, azkeneko kantitate hau hobe da.

Iazko urtean biztanle bakoitzak 22,4 kg. bota zituen edukiontzi berdera. Kantitate hau Espainiakoa baino askoz hobe da. Aipatu Europako herrialde birziklatzaileneetan herritarrek antzeko maila daukatela (Suitza, Herbeak, Austria, Suedia, etab.).

Aurtengo urtarrilean Goierri best 60 edukiontzi banatu dira beiraren bilketarako eta urtean zehar beste hainbat ere jarriko dira. Helburua da gaikako bilketa dauden puntuetan 3 edukiontziak egotea.

● Paper eta kartoi bilketa

Beiraren atzetik hurrengo bilketa paperarena da. Iazko urtean herritar bakoitzak 31 kilo bota zituen edukiontzi urdinera. Kantitate honi puntuz puntu dendariei jasotako kartoiak gehitzen badiogu guztira biztanleko eta urtean 43,7 kilo bildu dira. Honek esan nahi du gure eskualdean sortzen den paper eta kartoiaren %49a birziklatu dela, hau da, ia erdia. Bilketa honetan oraindik ere hobetzeko aukera badugu, Europako herrialde hoberenak %70aren inguruan baitabilza. Edukinontzi hauen bilketa maiztasuna gehitu egin da.

● Ontzien bilketa

Ontzien bilketa da gehien hazten ari dena, bilketa berriena bera baita. Edukiontzi horiaren bilketa %14 igo zen. Urte honetan biztanle bakoitzak 6 kg. bota ditu edukiontzi horira. Sasieta mankomunitatea Gipuzkoako buruan dagoela ontzi bilketan.



2001eko proiektuak

● Betaurreko eta lente zaharren bilketa

Betaurreko eta lente zaharren bilketa garatzen ari diren herrialdeetara bidaltzeko. Eskualdeko optiketan jasotako betaurreko zaharrak biltzen dira beharra duten herrialdeei bidaltzeko, adibidez, Tanzania edo Ruanda. Lehenengo bilketa dagoeneko egin da. Gure mankomunitateko optika guztiak hartu dute parte proiektu honetan eta Gobernu Kanpoko Erakunde batzuen laguntza ere izan da.

● Sukaldean erabilitako olioaren bilketa

Proiektu hau udaberrian garatu nahi da. Egutegi bat jarraituz furgoneta batek Sasieta herri handienetan sukaldean erabilitako olio jasoko du. Ondoren olio hau gorde egingo da olio birziklatzen duen planta berri batera bidaltzeko. Planta honen produktua biodiesel izeneko autoetako erre-geia izango da, betiko gasoilaren ordezkia.

● Telefono mugkorren eta baterien bilketa

Telekomunikazioen teknologien garatze azkarra dela eta telefono mugikor asko zahartuta gelditzen ari dira. Mankomunitateak telefono hauek jasoko ditu eta baita beraien bateriak ere, ondoren birziklatuak izateko. Momentuz bilketa hau Madrilan bakarrik egin da.

● BioSasieta

Zabortegiko gasa elektrizitate bihurtuko duen planta eraikitzen ari dira eta udarako bukatuta eta frogak egiten egotea espero da.

 **EGUZKI**
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN


 **aulia**
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

943 80 60 66

LEGORRETA

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 943 88 60 70

BEASAIN

Segurako Aste Santuko Prozesioa

Ordu askotako lan ixilaren emaitza

Seguran Ostegun eta Ostiral Santuko Prozesioak behar bezala ateratzeko, aurretik, ixil-ixilean, lan ugari egin behar izaten du segurak askok eta askok. Artikulu honetan, ixileko lan ezberdinak biltzen saiatu gara.

Segurako Prozesioko antolatzaileak, urrirako hasten dira lanean. Hondatuta dagoena konpondu, arropak garbitu.... Prozesioan bertan 305 bat herritarrek hartzen dute parte, biztanleriaren laurden batek. 65 santueramale, 50 nazareno, 13 erromatar soldadu, 24 penitente, monagiloak, aingerutxoak, San Migel, txistulariak, kantoreak... Guztia behar bezala atera dadin, lan asko egin behar da.

Asko sentitzen da Prozesioa Seguran. "Bestela ezin- go litzateke aurrera atera. Batzuk folklore bezala hartzen dute, beste batzuk erlijio bezala... Herri guztiak parte hartzen du".



Patxi Garaialde, santu eramalerik zaharrena; Isidro Arrondo, Aste Santuko batzordekoa; Ana Mari Rekondo eta Asun Gereñu, Aste Santuko irudien jantziztailea; Pilar Aldasoro baratzeko otoitzari loreak jartzen dizkiona eta Jose Luis Etxeberria, Aste Santuko antolatzailea.

Santuak jaitzi eta jantzi

Dena den, lanik gehiena, Aste Santuko aurreko larunbatean, Erramu bezperan, izaten da. 30-40 bat segurak aritzen dira horretan.

Santuak jaistea izaten da lehenengo lana. Hau gizonez-koen lana izaten da. Andatan

ipini eta emakumezkoek, pixka bat garbitu eta eta txukundu egiten dituzte. Honela, urte guztian santuek izaten dituzten arropak kendu eta Prozesiorako arropa bereziak jantzen dizkiote.

Ana Mari Rekondok eta Asun Gereñuk esan digutenez, "arropa asko erabili be-

har izaten da. Batetik santuei kendu eta jarri behar zaizkienak, eta bestetik, eramatzaileriek eramaten duten arropa, anda bakoitzari jarri behar zaio. Arropa guztiak kajatan egoten dira. Bakoitzak arropa berezia du eta arropa asko erabiltzen dugu". Sakristian egoten dira arropa guztiak gordeta. Dena den, Prozesioa bukatutakoan, larunbatean, ere nahikoa lan izaten da, agian lan gogorragoa, arropa guztiak lehengo lekuan jartzen.

Iazko aldizkarian azaldu genuenez, San Migel jantzen, esaterako, bi orduetik gora pasatzen dute. Pertsonaia garraintzitsua da oso San Migel eta aurten Jon Agirrek izango du San Migel izateko ohorea; kapitanaren familiakoa da bera.

Baratzeko otoitza

Apostolu guztiekin azken afaria egin ondoren, Jesus Getsemani izeneko baratzera joan zen otoitz egitera. Irudi hau lorez inguratutik ager-

SANTA BARBARA

karrozategia

Juan Mari Oiarbide

Kale Nagusia ☎ 943 80 11 60

SEGURA



OTATZA SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere irekita
(asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Apirila bukaera arte sagardotegia
Maiatzetik aurrera erretegi bezala irekita

☎ 943 80 17 57 ZERAIN



SEGURA

SEGURAKO UDALAK Aste Santuko ospakizun ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen zaituzte, gogoraraziz "Segura, hiribildu guztia museo bat" lemapean eskaintza turistiko ezberdinak zuen eskura daudela.

tzen da eta Pilar Aldasoro arduratzen da lan horretaz.

Lore ezberdinak jartzen dituzte, kolore ezberdinetakoak. "Lore gorriak eta horriak ondoan ez jartzeko esan zidaten". 17 bat urterekin hasi zen lan horretan, izebari lagunduz. Hiru alditan jartzen dizkio, larunbatean, ostegunean eta ostiralean, "tristetu egiten dira eta".

Gaur egun loradendatik ekartzen ditu loreak, baina garai batean, etxean landatzen zituzten. "Aberatsek ere izaten zituzten lorategiak eta handik ere hartzen genituen".

Santu eramaleak

Hauek egunean bertan izaten dute lana. Lan gogorra beneratzen. Ordu betez, pisu ugari eramane behar izaten dute bizkar gainean. Patxi Garaialde santu eramalerik zaharrena da, 73 urte ditu. Piedadea pasoa eramaten du. 179 kilo pisatzen ditu. Lau lagun artean eramaten dute. Aurpegia estalita eramaten dute santu-eramaleek eta horri eskerrak: "aurpegia agerian eramane beharko bagenu ia inor ez zen prest egongo. Asko sufritzen da...". Sorbalda belztuta dutela bukatzen dute santu eramaleek.

Pausua berdin mantentzen

nahikoa lan izaten dute. Danborraren hotsik ez omen dute entzuten eta aurrerago joaten den gurutzaren pausoari jarraitzen omen diote. "Pausoa galduz gero, gogorrakoa izaten da santua eramatea, askotan kilo gehiago eramane behar izaten ditugu eta bizkarrean".

Ez omen dute entrenamendu berezirik egiten santu eramaleek. Dena den, bazen bat, entrenatzeko saski arbiak bizkarrean erabiltzen zituenik.

"Nire santua"

Bakoitzak "bere santua" izaten du. Santu eramaleek esaterako, beti santu bera eramane dute. Familiatik datorkien tradizioa izaten da. "Kosta egiten da besteei uztea", esan digu Jose Luis Etxeberriak. Sasoiko jendea behar da santuak eramateko.

Beilan

Ostegun Santu eguneko mezan, Soldadadean dagoen sagrario batean, Jesus (Kaliza batek irudikatuta) giltzapetu egiten da urrezko giltza bere kate eta guzti. Segurako alkatetik gordetzen du golkoan, Ostiral Santuan bere espetxe horretatik askatzen duten arte.

Jauna leku horretan dago-



Egitaraua

Apirilak 8: Erramu igandea: 11:45ean, erramu bedeinkatzea. 12:00etan, Meza Nagusia.

Apirilak 12: Ostegun Santua: 17:00etan, Jaunaren Afariko Meza. 18:15ean, Prozesioa.

Apirilak 13: Ostiral Santua: 8:00etan, Gurutz Bide Santa Engrazitik

Komentura. 16:30ean, Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna, gurutzetik jaistea. 18:15ean, Prozesioa.

Apirilak 14: Larunbat Santua: 20:00etan, komentuan.

Apirilak 15: Pazko Eguna: 12:00etan.

en bitartean, bela egiten zaio. Orduerdiko txandak eginez, momentuoro jendez inguratuta egoten da atxilotutako Jauna zaintzen. Txanda hartzeko, Erramu eguneko meza ondoren, jendeak izena ematen du sakristian eta Ostegun Santuko mezaren ondoren, zozketa egiten da. Emakumezkoak egunez egoten dira eta gizonezkoak gauez. Dena den, emakumezkoen ar-

tean ez da zozketarik egiten.

Kantoreak

Abesbatza ere urrian hasten da entseatzeko. Errepertorio berezia prestatzen dute Aste Santurako. Aurten gainera, abesti berri bat kantatuko dute: 'Hil da Jesus'. Duela 100 urtetik gora Seguran abesten zen abestia da, Zamorano deitura zuen batena.

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
EROSLE GOIKO
Bertako haragia
Gaztak, etxeko arkumeak...
Zurbano, 8 ☎ 943 80 03 26
SEGURA

ARANBURU
HARATEGIA
Nagusia, 34
☎ 943 80 10 14 - 943 80 01 41
SEGURA

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA

IMAZ Jatetxea
◆ Eguneroko bazkariak
◆ Karta
Kale Nagusia, 27 ☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77
SEGURA



Mugatako irteera

Gailurrerantz Kirol elkarteko mendi sailak Zaldibiko mugak ezagutzeko mendi irteera antolatu du igande honetarako. Ibilbide erraza bezala izendatzen duten irteera hau goizeko 8etan abiatuko da plazatik, eta gutxi gora behera 4 ordu eta erdikoa izango da: plaza-Ibargun-Arru-Urtsularre-Aizporra-Gaintzeko kruzea-Ernaitza goikoa-Olakosai-Zaldibia. Mendi buelta eman eta gero galdutako indarrak berreskuratzeko, berriaz, bazkaria izango da eguerdiko 14:00etan. Entsalada, oilaskoa, postrea, kafea eta kopa dastatzeko aukera egongo da, baina horretarako apirilaren 6a baino lehen, hau da, gaur azken eguna, eman beharko du izena bertara joateko asmoa duenak. Animo bada, egun pasa paregabea igarotzeko aukera ederra da eta!

Bi langile kontratatzeko deialdia

Urtero bezala, Zaldibiako udalak herrian sortzen diren beharrei aurre egiteko eta enplegua sustatzeko helburuarekin, udal zerbitzuetako peoi lanak betetzeko bi langile

kontratatzeko epea irekiko du datorren astelehenean, apirilak 9. Langile hauek 6 hilabeteko kontratua izango dute lanaldi osorako. Izena emateko epea apirilaren 27an amaituko da. Lanerako sei hilabete hauek maiatzaren 15ean hasi eta azaroaren 15ean bukatuko dira. Hauek dira deialdi honetan izena emateko bete beharreko baldintzak: herrian erroldatua egotea, langabezian apuntatuta egotea eta lanpostuaren eginbeharrarekin lotuta dauden trebetasunak edukitzea.



Saturdiko festa

Hil honen 16an, pazko bigarrenaz, Saturdiko festa eguna ospatuko da izen bereko auzoan. Hauxe da aurtengorako pres-tatu den egitaraua:

Goizeko 11,30etan: Meza nagusia Saturdiko basilizan.

Ondoren, auzoko emakume eta gizon zaharrenei opari bana emango zaie.

13:00etan, auzotarren arteko Toka txapelketa.

14:30etan, Bazkaria. Mendiluze eta Lazkano bertsolariek eta Laja eta bere lagunek trikitiaz alaituko dute festa.

Arratsaldeko 5,30etan, herri kirolak: Mitxelena eta Iñaki Azurmendi batetik, eta Agirrezabala eta Altzo bestetik, segan eta aizkoran arituko dira elkarren kontra.

Ondorenen, eta iaz bezala, Joseba Ostoloza Ernaitzako harriarekin deman arituko da. Iaz 5 minutuan 9 jasoaldi eman zizkion harri berezi honi, eta aurtan hori gaingitzen saiatuko da.

Festa amaitzeko, erromeria Laja eta bere lagun trikitilari-ekin.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*

Labur-labur

Aratz Mendizabal

Zaldibiko pilotari gaztea indarrean dabil. Pasa den martxoaren 23an Zumarragako lau eta erdiko txapelketa irabazi zuen Martinez de Irujo naparrari 22-21 gailendu eta gero. Partida gogorra izan zen, emozioz betea, eta azken txanpan 21-19 galtzen joan bazen ere, Aratz bera izan zen azkenean garaikurra eraman zuena. Eutsi horri!

Ordulari bat azaldu da

Hala da. Iada badira hamabost bat egun Titan Quartz markako emakumeentzako ordulari bat herriko taberna batean utzi zutela.

Egun, udaletxean dago. Beraz, jabeak bada-ki nora jo behar duen!

Aberri Eguna

Zaldibiako udalak datorren apirilaren 15erako Udalbiltzak "Euskal Herria eraikitzen" lelopean deitu duen Aberri Egunean parte hartzeko dei zabala eta anitza luzatzen die zaldibitar guztiei. Azken bi urteotan bezala, Euskal Herriko udalerrri guztietan ospatuko da euskal aberriaren eguna, eta horregatik gonbidatzen zaituzte eguerdiko 12etan herriko plazan izango den ekitaldira.



**URBIAKO
GAZTA**



3 belaunaldi gaztagintzan



- **BASERRIKO
PRODUKTUAK**
- **KONTSERBAK**
- **ARDOAK**

GOLD VIEW KRISTAL PROGRESIBOAK MULTIOPTICASEN



URRUN



HURBIL



3 hilabeteen ordaindu
errekargurik gabe

Edozein distantziatara ondo ikusi ahal
izango duzu

19.500
pta.-tik aurrera

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - **ORDIZIA**



Korrika Legorretan

Martxoaren 29an Gasteiztik abiatutik Korrikaren 12. aldia joan den astelehenean iritsi zen Legorretara. Hainbat ume eta gazte gogotsu zeharkatu zuten herria euskararen aldeko jai honetan. Korrikaren erritmoa azkar samarra bazen ere, euskararen

aldeko oihurik ez zen falta izan ibilbide guztian zehar.

Aurten, Joxe Bernardo Jauregi zena omendu dute euskararen alde egin zuen lan guztiagatik. Horretarako, herrian bere seme-alabek eraman zuten lekukoa.

Herriko futbol txapelketa

Aurtengo futbol txapelketa amaitzeaz dago. Hain zuzen ere igandean bukatuko da 'Ez dakigu ezer' eta 'T'urko's' taldeen arteko final interesgarriarekin.

Joan den astebukaeran jokaturiko finalerdietan argi geratu zen taldeen artean dagoen parekotasuna. Lehen neurketan 'T'urko's' taldea 1-0 emaitzarekin nagusitu zen 'Asuntoa' ren aurka.

Ondoren 'Ez dakigu ezer' eta 'Top less' taldeak aritu ziren lehian. Neurketa hiruak berdinketarekin amaitu zenez, ondoren luzapena jokatu behar izan zen finalera nor pasa erabakitzeko. Bertan, 'Ez dakigu ezer' taldeak 3 gol lortu zituen azkenean 6-3 emaitzarekin gailendu zelarik.

Igandean, finala jokatu ondoren sari banaketa egingo da, ondoren, urtero bezala Bilkoin Elkartean talde guztiek bazkari eta giro ederraz gozatzeko aukera izango dutelarik.

Jubilatuen irteera

Hilaren 19rako, osteguna, Iratxera irteera bat antolatu da legorretar jubilatuei eta pentsionistentzat.

Joan nahi dutenek hilaren 11 bitartean Jubilatuen Elkarteko bulegoan izena emateko aukera dute. 3.000 pezetan ordaindu beharko dira.

Orkatz Txiki abesbatza- ren emanaldia

Apirilaren 7an arratsaldeko 8etan Zegamako Orkatz Txiki abesbatzak emanaldia eskainiko du herriko Salvador Deunaren Parrokian.

Zinea

Apirilak 19: 'Caprichos del destino'

Apirilak 26: 'Asfalto'.

*Laida Oiarbide
Inko Mujika*

mundu bat euskarara bildu



2001- Gasteiztik Baionarat • martxoak 29 > apirilak 8

JOS & BEL


ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15
 ☎ 943 88 82 52
 ORDIZIA



- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak

Zutikako solariuma
 4 eta 8 minutuko sesioak
 (7 eta 10 sesiotako bonoak)



OLABERRIAN ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK



sarrera, sukaldea, egongela, 3 bainugela, 3 logela, 2 terraza, balkoia, garajea eta lur saila

ERAIKUNTZA ETA SALMENTA:

LANTEGUI S.A.

Tefnoa:

943 69 39 02

Joan Iturrarteren ehungintza erakusketa ikusgai



Datorren apirilaren 12tik 16ra biak barne, Zegamako Udaletxearen sarreran, Informazio gune egonkor bat izango da bertan, kanpotik datozkigun bisitariek aukera izango dutelarik Zegaman zehar elementu turistikoetara bisita gidatuak egiteko eta azalpenak jasotzeko.

● **Ehungintzako erakusketaren ordutegia:** apirilaren

12tik 16ra, goizetan 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldetan, 16:00etatik 19:00etara.

● **San Martin Parrokia bisitatzeko ordutegia:** Apirilak 12, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 17:30era; apirilaren 13an, 11:00etatik 14:00era eta 18:00etatik 19:00era; apirilaren 14an, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, apirilaren 15ean, 13:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta apirilaren 16an, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.



Euro astea azken txanpan

Apirilaren 2tik 8rako Euro astea martxan dago Zegaman, eta bihar larunbata, apirilak 7 eta igandean, apirilak 8, emango dio amaiera. Larunbatean, goizez haurrentzat jokuak izango dira eta arratsaldean logo lehiaketa burutuko dute Aitxuri Herri Eskolako haurrek, ondoren txokolata jatea izango delarik guztientzat.

Aste honetan zehar nahi izan duen zegamarrak aukera izan du Euro txanpona eza-gutu eta erabiltzeko eta azken txanpa igande eguerdian izango da, bertan azoka berezi bat izango delako eta herriko Zegama okindegiak bere produktuak salgai jarriko ditu; horrezaz gainera Mari Paz Oiari bidek ere gazta, kontserba eta txakolina ere salgai izango ditu, hori bai, Eurotan erosi ahal izango direnez bakarrik, bertan egon-

go da Euroak aldatzeko arduraduna. Bestalde herriko elkarteek lagundurik Udalak zenbait pintxo eta basoérdi salgai jarriko ditu azoka berezi honetan betiere salneurri sinboliko bat jarrita, helburua zegamarrak euro txanponak erabiltzea baita eta inola ere ez dirua ateratzea.

Gutxitu fisiko edo sensoriala duten pertsonentzako oporrak

Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak 2001 urterako bidai programa zabala antolatu du Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentua laguntzaile duela. Bidaia hauek "duten minusbalitasuna dela eta opor batzuk goza ezingo luketen pertsonentzat" daude aurreikusita. Epea apirilaren 15ean bukatzen da. Informazio gehiagorako jo ezazu Udaletxeko Gizarte Laguntzailearengana. (943801351 Begoña).

Euskal selekzioa (Esait) hitzaldia

Datorren apirilaren 19an, iluntzeko 19:30etan hitzaldia izango da Kultur Etxean Euskal selekzioen gaia orokorrean tratatuko delarik. Bertan ESAIT edo Euskal Selekzioko arduradunak, Gipuzkoako Pilota eta Txirrindularitzako Federazioko partaideak eta zenbait kirolari izango dira.

Informatika ikastaroa

Apuntatzeko azken aukera. Interneteko ikastaroan parte hartzeko izena eman duzuenok, bilera datorren apirilaren 9an egingo dugu Kultur Etxean, arratsaldeko 19:00etan, bertan ikastaroa emango den egunak adostuko direlarik guztien artean. Bestalde oraindik bakarren bat apuntatu gabe balego eta ikastaroa egiteko gogoia izan, bilera egunean ager zaitez Kultur Etxean.

Pintura ikastaroa

Iazko ikasturtean Kultur Etxeak antolaturik eman zen pintura ikastaroak izandako arrakasta kontutan hartuz, aurten ere beste ikastaro bat martxan jartzea erabaki du Kultur Etxeko Batzordeak. Beraz, ikastaro honetan parte hartu nahi duenak izena apirilaren 20 bitartean eman behar du Udaletxean. (943 801351 Edurne)

Edurne albizu

Ahots ordiziarrek indarberritzen

Azken urte hauetan Gipuzkoan diren abesbatza gehienak aldaketa sakonak jasaten ari dira. Estatu osoko maila gorenena izatea ez da nahikoa izan talde gipuzkoar hauek orain arte bezala aurrera jarraitzeko. Beste gauza asko bezala abesbatzak ere aldatzen ari dira: lan egiteko era, teknika, errepertarioa, baita entzulegoa bera ere...

Ordiziako Oroith abesbatzak aldaketa batzuk izan ditu, 2000ko udaren ostean. 94 urterarte Amalia Ibañezen zuzendaritzapean aritu zen; ondoren, Gorka Aierbek hartu zuen zuzendaritzaren ardura; egun, zuzendari berria du:

Katrin Iturralde Izuzkiza, hemendik aurrera haurren abesbatzako zuzendariak gain helduena ere izango da. Abeslari mugimendua ere egon da; batzuk utzi duten bezala, zenbait berri hasi dira; baita garai batean bertan abestutako beste zenbait ere bueltatu dira; beste batzuk, berriz, haurren taldetik ahots nahasien taldera "igo" dira.

Talde hau aurrera eramateko asmoz, 14 eta 37 urte bitartean dituzten 22 abeslari ari dira koruan momentu honetan. Gehiengoak ordiziarrek badira ere Goierriko herri ezberdinak (Segura, Olaberria, Beasain...) jendea



etortzen da astean bitan egiten dituzten entseietara. Ostiral gauean (21:45-23:00) eta larunbata arratsaldean (16:00-17:30) lantzen dituzte hamaika partitura. Entseuez gain, noizean behin "konzentrazioak" ere egiten dituzte Gipuzkoako aterpetxe ezberdinetan. Duela egun gutxi Hondarribiakoan izan dira, oraingo abestiak lantzen.

Haurren abesbatzan zein ahots nahasien abesbatzan, era askotako musika lantzea gustuko dute: berpizkunde, barroko, erromantiko... garaietarako musikaz gain, lurralde ezberdinakoko musika herrikoia, "pop"-a, garaikididea eta batez ere euskal folklorea.

Ikasturte hasieratik lantzen ari diren egitarauarekin

kontzertuak ematen hasiak dira dagoeneko. Estrainekoa, apirilaren 1ean, Zestoan eskaini zuten eta apirilaren 8an Ordiziako parrokiaren izango ditugu, 20:00etan.

Oroithekoek, abeslari berriei atea ireki eta musika eta abestea gustuko dutenei, beraiekin abestu dezaten gonbitea luzatzen diete. Jendea, batzuetan, honelako talde batek maila gorenegia ote duen "beldur" izaten bada; Oroith abesbatzakoek entseuetara entzule modura joatea proposatzen diete. Beraiek nola lan egiten duten ikustea eta entzutea interesgarria izango da bat baino gehiagorentzat. Musika maila ezberdineko jendeak nola lan egiten duen konprobatu dezakete. Beraz, animatu!

Ordizia Rugby Elkartea bazkide bila

Ordizia Rugby Elkartea hasi du dagoeneko bazkide berriak egiteko kanpaina. Rugby taldeari lagundu nahi dionak, herriko tabernetan aurkituko duen formularioa bete besterik ez du. Dagoeneko bazkide denak, taldekideen eskutik jasoko du informazioa.

Jai Alaiako bikotea nagusi

Elkartearteko mus txapelketa jokatu berri da eta bertan Jai Alai Elkarteko Ignazio Etxeberria eta Marzial Garmendia nagusitu dira. Finalean aurrez-aurre Larrun Arriko Jon Biguri eta Patxi Muriel izan zituzten. Elkartea txapelduna, Argi Berri izan zen.

Kutur astea Jakintza Ikastolan

Martxoaren 27tik apirilaren 6a bitartean ospatu dute Jakintza-koek euren kultur astea. Irteerak, antzerkiak, ipuin kontaketa, kirolak, ikusentzunezkoak, amodiozko gutun lehiaketa eta beste hainbat joku eta lehiaketa protagonista izan dira aipatu egun horiek guztietan zehar.

Igaro da Korrika

Baionan izango du igandean amaiera aurtengo Korrika 12k. Euskal Herri guztian zehar herri eta txoko ugari zeharkatu ditu eta apirilaren 2an pasa zen gure eskualdetik. Ordiziatik, ordu erdiko atzerapenarekin igaro bazen ere, jende andanak egin zion etorrera lasterketari eta makina bat jende hartu zuen parte. Eguraldia lagun denek izan zuten metro batzuk besterik ez bazen ere euskararen aldeko Korrikan parte hartzeko. Korrika Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie era batera edo bestera Korrika 12n lagundu duten guztiei, denen beharra izango baitu euskarak.

Aitor Calvillo

Argi Berri saria



Gabiriako Osinalde Bertso sarirako baliagarria zen kanporaketa jokatu zen aurreko larunbatean Argi Berri Elkartean. Bertan bertsozale ugari bildu zen eta afari goxo bat dastatzeaz gain bertso saio politaz gozatzeko aukera ere izan zuen. 6 bertsolari aritu ziren: Jokin Uranga, Manex Agirre, Ainhoa Agirreazaldegi, Alaitz Sarasola, Iñaki Gurrutxaga eta Iker Zubeldia. Saioa paretsu joan bazen ere apirilaren 7an Gabirian jokatu den finalerako bi txartelak Alaitz Sarasola ordiziarra eta Ainhoa Agirreazaldegi zaraiztarrentzat izan ziren. Afalkideek, aldiz, IV. Argi Berri Sarirako euren botua eman eta argazkian ikus daitekeen bezala saria Alaitz Sarasolarentzat izan zen.

Odol emaileen eskaria

Odol Emaileen Elkartek 30 urte daramatza lanean. Gaur egun Elkartean 100 bat odol emale dira eta ateraldi bakoitzean odola ematen dutenak, berriz, 30-35. Iaz beherakada txiki bat izan zen. Beherakada honen aurrean Odol Emaileen Elkartek zera gogorarazi nahi die segurarei: "Odola ematea bizia ematea da eta gure esku dagoen ekintza xume bat gauza handi bat egitea baino ez da". Honela, odol emaile zaretenoi eta ez zaretenoi, apirilaren 7an, larunbatean, Segurako Osasun Etxean, arratsaldeko 5etatik 7etara, izango den odol ateraldira etortzeko gonbidapena luzatzen dizue, batez ere gazteei.

Lerro hauetatik, Udalak, herriko dendari, tabernari eta okindegiek ematen duten laguntza eta hainbat herritarrek ematen duten diru laguntza eskertu nahi du Elkartek.

Hazi bedeinkatzea apirilaren 16an

Santa Engrazi egunean eta izen bereko ermitan, haziak bedeinkatzearen urteroko erritua errepikatuko da. Auzotarrek, herritarrek eta inguruko herrietakoek saskitxoetan ekarriko dituzte soro-baratzetan ereingo dituzten haziak. Haziak eta ura bedeinkatzearen erritu zahar hau 12:00etako mezaren aurretik burutuko da baselizako atarian. Auzoan hildakoen alde emango den mezaren ondoren, udalaren laguntzaz hamaiketako eskainiko dute Santa Engrazi baserriko Ormazabalдарrek.



Erromaniko kutsua duen Santa Engrazi ermita XII-XIII. mendeen artean kokatzen dute adituek.

Garai batean, uzta ona ziurtatzearen, ez omen zuen inortxok ere hazirik ereiten, bedeinkapenaren erritua pasa aurretik.

Antolatzaileek, haziak xextoetan eramateko deia egiten dute.

Bola

● **Gipuzkoako erregularitate txapelketa.** Bederatzi jardunaldi jokatu eta hiru besterik falta ez direnean, Jokin Izagirre 402 birla jota lehen postuan dago Antonio Alustiza zeraindarrarekin batera.

● **Goierriko txapelketa.** Zazpigarren jardunaldiaren ondoren eta bi saioen faltan, Xepeño Agirre sailkapene-

ko 3. postuan (303 birla) eta Imanol Agirre 5. (295 birla) aurkitzen dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Zumaiako 2-2 Segura; **Jubenilak:** Segura 2-3 Mundarro; **Kadeteak:** Aizkorri 3-1 Antiguoko; **Infantilak:** Aizkorri 1-1 Hernani.

Asteburuan etxean: Preferentea, jaien, 11:00etan, Segura-Mutriko.

Kirol eskolarra

Tenisa: apirilaren 7an, goizeko 10,30etan tenisgunean Laiotzeko neska alebinek ataudarren kontra jokatuko dute.

2001eko aurrekontua


Pasa den martxoaren 22an Udalak 2001erako aurrekontuak onartu zituen plenoan. Orotara 260 milioi ingurukoak izango dira.

Joseba Telleria



Ekitaldi arrakastatsuak

Azken bi asteburuetan burutu diren ekitaldiak, Lore eta landare azoka zein VI. Iparra-Hegoa arrakastatsu baloratu dituzte ekitaldi bata zein bestearen antolatzaileek. Datorren udaberrian ere izango da ekitaldi hauetaz gozatzeko aukera.



I. SARIA

Jendaurreko III. Margo txapelketa

Iparra-Hegoa astearen barne, martxoaren 31n burutu zen pintura lehiaketan 21 margolarik parte hartu zuten eta 23 lan aurkeztu ziren. Joxe Mari Telleriak, Jokin Telleriak eta Patxi Epeldek osatutako

epaimahaiak Esteban Oroz eibartarraren lanari eman zion lehen saria. 2. saria Jose Reyes leioatarrarentzat zan zen. 3. saria Koldo Gojenola gasteiztarrarentzat. Akzesita Agustin Vaqueiro lazkaotarrarentzat. Aipamen bereziak jaso zituzten Piedad Santa Maria leioarrak eta Andres De Prado garinoaindarrak. Lan hauek herriko tabernetan jarriko dira ikusgai eta lagai.

Bertsolari gazteekin solasean

Joxe Munduate aurrera sailkapenean



Datorren udazkenean jokatu-ko den Txapelketa Nagusian parte hartuko duten bertsolariak izendatzeko lehen kanporaketan, Joxe Munduatek bigarren faserako giltza lortu zuen. 371.5 puntu lortuz, bigarren egin zuen Joxek Eibarko saioan, Bixente Gorostidiren ondoren. Asteburu berberean, Ataunen jokatu kanporaketan, Alfontso Jimenezek lortu zuen garaipena.

Apirilaren 20an hasiko den bigarren fase honetan, 24 bertsolarik parte hartuko dute eta, horien artean izan-
do da aietarra ere.

Bestalde, hori ez da Munduatek hil honetan izango duen ardura bakarra. Apirilaren 8an, 6 bertsolarik Añorgan jokatu-ko duten Orixe Sarriko azken saiorako ere sailkatua baitago.

Guzti honen harira eta, beren bizipen eta esperientzien berri izatearren, joan den ostegunerako jarri genuen hitzordua. Bertan izan ziren Joxe Munduate, Iban Urdangarin, Oier Zurutuza Aitzol Munduate eta Haitz Aierbe bertsolari herritarrak. Ordu t'erdiz luzatu zen solasaldi atseginean esaniko guztiak hemen biltzea ezinezko gertatuko bazaigu ere, mamia azaltzen saiatuko gara behintzat. Hasieretara itzuliz eman genion elkarrizketari hasiera. Joxe da, zaharrena izanik, beteranoena. 13 urte-ekin hasi eta 14rekin txapelketan parte hartuz geroztik,

15 urte baitaramazki bertsoen munduan. Berekasa hasi omen zen. Behin Jexux Goikoetxeari txapelketara aurkeztu nahi zuela eta ia lagunduko zion eskatu omen zion. Urtebetez aritu omen ziren Jexux eta biak txapelketarako prestatzen. Denbora asko pasa bada ere, gogoan du oraindik Joxek, Goikok jarri zion lehenengo gaia. Bata Bartzelonako afizionatua zen. Errealekoa bestea. Txapelketa aurretik Ordiziako Bertso Eskolan ere ibili omen zen. Lehenengo plaza ere gogoan du. San Prudentziotan Lazkaon.

Gazteak

Gainerantzekoek, gaztexasak hauek, 4-5 urte daramazkite bertsotan. 4 txapelketetan parte hartzen hasi zirenetik. Guztiek ere izen bat

darabilte ahotan, elkarrizketan zehar ere maiz-maiz aipatu dutena: Jexux Goikoetxea, hain zuzen. Harekin hasi eta prestatzen jarraitzen baitute orain ere, astero, asteazkenetan bilduz. Izan ere, bertsolaria jaio ala egin/hezi egiten den galderari zera esanez erantzun zioten: "*Garai batean gaiari gehiago lotzen zitzaion, egun inguratu egiten da gehiago*", egun ez dagoelarik lehen bezainbesteko berezkotasunik. Lekua, bertsoa, bertsolaria aldatu egin omen dira. Egun literatura, irakurtzeak, aktualitatearen berri izateak... horrek balio omen du. Beren familian bertsotarako tradizioz izan den galdetzean, Iban eta Haitzek osabarakin egiteko ohitura badutela diote. Joxeren aita, berriz, Sutegin Basarriekin bertsotan aritua omen

Bertsolaritzaren egoera eta etorkizuna

Bertsolaritzaren egoeraz eta etorkizunaz aritzeko aukera ere izan genuen.

Guztiak ere ados daude saio batera joandakoan, jendeak izenei begiratzen diela edukari baino gehiago eta horrek kaltea baino ez dakarkiola bertsolaritzari. "*Lehenengo bertsolaritza naturalagoa zen*", dio Joxek, eta bertsolaritzan ematen ari den eraldaketa trikitixarenekin gonbaratu du. "*Lekua bilatzen jakin behar da*".

Bukatzeko, beraien etorkizunaz galdetzean, ez dute bertsolaritza beren ofizio/lanbide bezala ikusten. Ibanek 18 urtetan ikusten du muga. Hor planteatzen omen da seriozki aurrera egin ala ez. "*Hilean saio bat edo bi nahikoa da niretzat*", dio Joxek "*aldian behin utzi ere egin behar da*". Eta horrela dio amaieran "*une onak gutxi, baino hainbeste balio dute*".

da. Bestalde gogoan du, larunbat iluntzero, 7etan, J.M. Iriondok irratian eskaintzen zituen bertso emanaldiak. Baina zerk egiten du bertsolari on bat? Lau ezaugarri behar omen ditu: etorria, intuizioa, patxara eta konfiantza. Bertso on batek aldiz, goitik-behera josita egon behar omen du, eta bukaeran eran behar omen du indarra. "*jendeak entzun nahi duena kontatzean*" hortan datza koxka dio Joxek. Horretarako guztiz beharrezkoa omen delarik "*jendearekin kontaktatzea*" Bat-bateko bertsoa ala idatzia nahiago duten galdetzean, guztiek ere bat-batekoa nahiago dutela adierazi dute, Oierrek idatzia ere gustoko duela badio ere. Dena den garbi utzi nahi izan dute biak ere guztiz desberdinak direla. Oholtzara igotakoan zer sentitzen duten galdetzean, guztiek ere gozatu egiten dutela erantzun dute. "*Kantatzen hasi aurretik pasatzen da nerbio gehien*", dio Aitzolek. Txapelketei buruz ere jarduteko aukera izan genuen. "*Bertsolaritzari mesede eta kalte ere egin diote. Txapelketan ez da ikusten bertsolaria, estilo batek irabazten du beti txapelketa*", diosku Joxek.

Agurtzane Bikuña

Autobusen ordutegian aldaketak

Apirilaren 17tik (asteartea) aurrera, Idiazabal-Zaldibia ibilbidea egiten duten autobusetan ondoko aldaketak izango dira: Zaldibiatik goizeko 9,30etan abiatzen dena, 9,15ean irtengo da; gaueko 10,20ean ateratzen dena 10,10ean abiatuko da.

Idiazabaldik goizeko 10etan abiatzen dena, ordu laurden beranduago irtengo da (10,15ean); arratsaldeko 6etako autobusa, 6,30etan irtengo da. Eskola egunetan Idiazabaldik goizeko 8,30ean abiatzen den autobusa orain Zaldibiaraino joaten da, apirilaren 17tik aurrera Beasaina bitarteko bidea egingo du.

Zinegotzi Berria

Xabier Ariztimuñok (EAJ) zinegotzi kargua hartu zuen martxoko plenoan. Ariztimuñok, Asier Oiarbideren lekua beteko du. Azken honek, lan kontuak tarteko zinegotzi kargua utzi beharra izan du.

Mendi Elkartea

Martxoaren 25ean Urdaibaira egindako irteerak izandako arrakastaren ondotik, Mendi Elkartekoak hilabete honetarako beste irteera bat prestatzen ari dira. Arabara, bi eguneko ibilaldia antolatzen ari dira apirilaren 21 eta 22rako.



Arg.: Añña Barandiaran

Korrika 12

Korrikaren 12. edizioa astelehenean eguerdiko ordu bata aldera iritsi zen Idiazabala. Herriko talde, enpresa, alderdi politiko eta bestelako taldeek erosi zituzten Idiazabalen bete beharreko kilometroak.

Aurretik, larunbatean Korrika kalejira egin zen herrian barrena. Herritar ugari bildu zen, lehenengo herrian barrena eta ondoren plazan egin zen ekitaldira. Bertan Idiazabalgo AEK-ko ikasle batek Idiazabalgo Korrika kalejiran ibili zen lekuak zeraman mezua irakurri zuen. Euskarak bizirik iraun dezan, ez dakitenek ikasiz eta dakitenek erabiliz, lan asko egiteko dagoela gogora ekarri zuen gogora mezu horrek.

Xabier Urteaga

Baserri bideak

Olariaga eta Enpajolatza baserrietarako bideak berritzea

erabaki zuen Udalak martxo-ko plenoan.

Mutiloa- Zerain

Gazteei gonbidapen berezia egin die Odol Emaile Elkartek

Odol ateraldia apirilaren 7an

Segura, Zerain eta Mutiloako Odol Emaileen Elkartearen helburua, Seguran, urtean hiru odol ateraldi egitea izaten da. Honela, apirilaren 7an, Segurako Osasun Etxean, arratsaldeko 5etatik 7etara izango da aurtengo lehenengo ateraldia.

Odol Emaile elkartek, odol emaile zaretenok eta ez zaretenok gonbidatu nahi zaituzte, "odola ematea bizia ematea delako eta gure esku dagoen ekintza xume bat gauza handi bat egitea baino ez delako". Batez ere gazteak gonbidatu nahi di-

tuzte odola ematera.

30 urte

Odol Emaile Elkartek 30 urte daramatza lanean. 1971n sortu zen. Gaur egun Elkartean 100 bat odol emale dira eta ateraldi bakoitzean odola ematen dutenak, be-

rriz, 30-35. Iaz, dena den, behar-kada txiki bat izan zen. Odol emaleak 97 izan ziren. 1998an 131 eta 1995ean 122 ateraldirekin alderatuz, nahiko baxua. Beraz, emaile kopurua igo nahirik, gonbidapen berezia luzatu dute Elkartekoek.

Lerro hauetatik, Udalak, herriko dendari, tabernari eta okindegiek ematen duten laguntza eta hainbat herritarrek ematen duten diru laguntza eskertu nahi du Elkartek

Asteburu trinkoa kultur asteari amaiera emateko Dantzari Txiki Eguna igandean



Aste osoa emanaldiz beteta igaro ondoren, asteburua ere ez dator makalago. Kultur astea azken txanpan sartuko da, eta egitarau trinkoa bezain aberatsa izango du. Ekitaldi zenbait aipatze aldera, hona batzuk:

Apirilak 6, ostirala:
Antzinako musika tresnen inguruan hitzaldi eta kantaldia, Juan Mari Beltranen eskutik. Elizako antzokian, gaueko 9etan.

Apirilak 7, larunbata:
Gaztetxoek pilota txapelketako finalak benjamin, alebin eta infantil mailan, II. Gabiriako Pilota Topaketen barnean. Arratsaldeko 5etan, frontoian.

Osinalde bertso sariketako finala: arratseko 8,30etan hasiko da afaria. Ondoren, berriz, bertso saioa. 30. sari-keta honen finalera Iñaki Apalategi (Beasain), Gorka Ostolaza (Markina-Xemein), Itziar Izagirre (Hernani), Ekaitz Goikoetxea (Beasain), Ainhua Agirreazaldegia (Bergara) eta Alaitz Sarasola (Ordizi) sailkatu dira, Idiazabal, Aztirin eta Ordizin egindako saioetan.

Apirilak 8, igandea:
Goizeko 11tan Erramu egune-ko meza nagusia.

Dantzari Txiki Eguna: herrian bertan izango dugu oraingoan. Eguerdi partean izango da saioa, lau herritako dantzari txikiek parte hartuko dutela: Zumarragako *Irrintzi*, Lazkaoko *Oin-arin*, Ordiziko *Jakintza* eta Gabiriako *Goruntz* taldeak ariko dira.

Hamaiketan elkartuko dira talde guztiak plazan, harrrera egin eta hamaiketako txiki bat egiteko. Eguerdiko 12etan hasiko da dantza saioa. Hasteko guztiek batera hiru dantza aurkeztuko dituzte, ondoren talde bakoitzak bakarka bina dantza eta amaitzeko beste hiru, atzera laurak elkarrekin.

Antzerkia: Azpeitiko *Lakrikun* konpainiaren "Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin" lana ikusgai, arratsaldeko 5etan elizako antzokian. Telebistako aktore ezagunak osatzen dute taldea, eta iazko Kilometroak festarako prestatu zuten antzezlan.

Aimar Maiz



Urrezko ezteiak

Ostegun Santu egunean beteko dute Kataraingo Joxe Ramon Iztuetak eta Joxepa Arriolak ezkondu zireneko 50. urteurrena. 1951ko apirilaren 12an eman zioten elkarri baietza Azkoitin, eta gizaldi erdia pasa dela eta, hilaren hamabostean ospatuko dute egun berezi hori Liernin, senide, seme-alaba eta ilobaz inguraturik. Urte askotarako!

Labur-labur

● Osinalde elkarteko **mus txapelketaren** 23. edizioa Oier Oiarbidek eta Xoxalek irabazi zuten, finalean Felipe Altuna eta Joxe Maiz menperatuta. Hirugarren Txomin Bidegain eta Ximon Idiakez, laugarren Anjel Ariztimuño eta Joxe Luis Bidegain.

● **Korrika-12** joan den astelehenean herri-barrutitik igaro ez bazen ere mugatik bai, Liernitik Ormaiztegitirantz.

● **Argazki lehiaketako sarituak:** 1. Aloña Murua, 2. Ane Miren Aizpuru, 3. Jexux M. Gorrotxategi. Asteburu honetan argazkiak oraindik erakusgai izango dira dantzalekuan.



● **Bolak** igandean, apirilaren 8an, Gabiriako udal bolatokian. Izena emateko goizean 9:30etatik 11:30etara; arratsaldean 4:30etatik 5:30etara.



beroa Korrikari

Apirilaren 2an pasatu zen Korria 12 gure herritik. Beasaindar ugari atera zen korrika egun garrantzitsu honetan. Beasaingo Korrika Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie Korrika 12an parte hartu zuten beasaindar guztiei. Beasaingo herrian hainbat kilometro erosle egon dira eta hauei ere eskerrik beroenak eman nahi dizkie: CAF-eko LAB, Arriarango Mendizabal Pizarreria, Ezkio-Itsaso Herria, AEK-ko Irakasle eta Ikasleak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Kimuak eta Gazte Asanblada, Komite Internazionalistak, Arrano/Euskal Herritarrok, Beasaingo Ikastolako Kilometroak, Loinazpe Ikastetxea, Alkartasuna Lizeoa Ikastetxea, Alkartasuna Txindoki Institutoko Irakasle eta Ikasleak, Ai Geala Euskara Taldea eta Bea-

saingo Udala.

Korrikari harrera egiteko ekitaldi desberdinak antolatuta ziren aurreko egunetan. La Salle Ikastetxean eman zuten 'Pirineoak armonian' diaporama emanaldira jende ugari agertu zen. Martxoaren 30ean, Beasaingo arkupetan, Goierri mailako sukaldaritzaren lehiaketa egin zen eta ondoren afaria. Afalostean giro paregabea egon zen. Beasaingo Korrika Batzordeak eskerrak eman nahi dizkio afari honetan parte hartu zuten guztiei: Arrano, Arriarango Intxaurrondo, Loinatz abesbatza, Aizkorri Mendizale eta Aitz Zorrotz elkarteak, Urteaga eta Elozegi edaritegiak, Gariona okindegia, Errotaundi eta Unanue, Askapena eta Beasaingo Udala. Jasok egin zituen opariak.

Itziar Zubiaurre eta Irati Goikoetxea sarituak

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuko bi ikasle hauek izan dira sarituak, Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatzen duten Resurreccion Maria Azkue literatur lehiaketan. 14-18 urte bitarteko mailan eta poesia arloari dagokionez, 'Argitasunez gaua' bertso sortarekin Irati Goikoetxea izan da lehenengo saia erdietsi duena. Narrazioari dagokionez, Itziar Zubiaurrek eskuratu du bigarren saria, 'Azken mailakoa ote' lanarekin.

Eskola antzerkia

Txindoki Alkartasuna Institutoko ikasleak antzerki lan umoretsu eta ausarta aurkeztuko dute apirilaren 6an. J. Luis Alonso de Santos idazlearen 'Bajarse al moro' lana taularatuko dute. Usurbe Antzokian arratsaldeko 7etan.

Dantzari txiki eguna

Apirilaren 8an ospatuko da Beasainen dantzari txiki eguna Aurtzaka dantza taldearen eskutik eta Beasaingo udalaren laguntzarekin.

Eguerdiko 12etan bilduko dira dantza talde guztiak Zelaeta berri plazan. 11 dantza taldeek hartuko dute parte. Oreretako 'Ereintza', Urretxuko 'Lurra', Lazkaoko 'Oin arin', Ordiziako 'Jakintza', Zaldibiako 'Iztueta', Portugaleteko 'Berriztasuna', Legorretako taldea, Dimako 'Gazte Berri', Ataungo 'Otsoak' eta azkenik, Beasaingo 'Ostadar' eta 'Aurtzaka'. Hemendik desfilean irtengo dira herria zeharkatuz. Lau geldialdi egingo dira eta geldialdi horietan talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu. Goizeko desfileari amaiera Loinazko San Martin plazan emango zaio eta bi dantza eskainiko dituzte talde guztiek batera. Ondoren bazkaltzera joango dira guztiak. Era berean deia zabaldu nahi dute Aurtzaka dantza taldekoek, kanpoko dantzariak etxeetan bazkaltzen emateko herritarrak animatuz. Interesa baduzue deitu, 943 880525 edo 656 755513 telefonoetara Nereaz galdetuz. Arratsaldeko ekitaldiari 5etan emango zaio hasiera. Loinazko San Martin plazan, talde guztiek bi pieza eskainiko dituzte eta honekin amaituko da aurtengo dantzari gatzetxoan jai hau.

Apirileko feria

Rozioko erromeriaren giroa nagusituko da apirilaren 21 eta 22an Beasaingo kaleetan. **Larunbatean 21**, eguerdiko 13:00etan, zaldien desfile batekin hasiko da erromeria, eta ondoren Euskalerriko eta Andaluziako dantzak ikusteko aukera izango dugu Ostadar, Sueños de Andalucía eta Al Andalus taldeekin. Arratsaldeko 18:00etan benenziadore baten lana ikusteko parada izango da (ardoa tramankulu luze batekin zerbitzen). Jasokundeko ama parrokian meza roziero bat abestuko dute Al Andalus korukoek 20:00etan. Eta Alegria de Sierra taldekoak izango dira gaueko 23:00etan San Martin Plazan abesten. **Igandean 22**, Aguamarina Monika Narbaizaren eskolako dantza taldea izango da 13:00etan. Jarraian, Marea Brava Hondarrabiko akademiakoak izango dira. Arratsaldean ere izango ditugu azken hauek 17:00etan eta ondoren, Alegria de la Sierrakoek kantatuko dute. 20:00etatik aurrera, kale giroa izango da Sevillanekin.

Udaberri Gaztea

Aurreko astean hasi ziren ekitaldien jarraipena izango du gaurtik aurrera Udaberri Gazteak. Bihar, apirilak 7, gazteenkanaren bigarren zatia jokatu da Loinazko San Martin plazan 15:30etatik aurrera. Gauean makrokontzertua izango da 10:30etan hasita Antzizar Kiroldegian. Carlos Segarra (Rebeldes), Redhouse (Caiga quién caiga), Mal de ojo eta Sinred taldeak izango dira. Aipagarria sarrera dohainik izango dela.

Ikastaroak Asmuberen eskutik

- Tiffany kristalezko lanparen inguruko kurtsoa apirilaren 24an hasiko da. Aurrez, lan honen erakustaldi bat egingo dute apirilaren 17an, arratsaldeko 4etan.
- Sukaldaritzaren ikastaroa apirilaren 18an hasiko da arratsaldeko 4,30etan. Egokiko Martin Gurrutxaga izango da irakasle.

Interesatuta zaudetenak Urbi-etxean duten lokaletik pasa beharko zarete izena ematera 17:00etatik 18:00etara edo beste la telefono hauetara deitu, 943 881697 eta 943 884840



Korrika Lazkaon eta Lazkao korrika

"Tipi tapa tipi tapa, badator korrika". Lemak dioen bezala, Korrika Lazkaora ere etorri da. Astelehenean, apirilak 2, atzerapenez, baina, iritsi zen Korrika Lazkaora. Jendea zain zegoen bide er-tzean. Eta azkenean, goizeko hamabiak inguruan, Korrika-ren muturra agertu zen Lazkaon. Musikaz lagundurik, hainbat lagun zetozen korrika. Eta Lazkaon, partaideen kopurua haunditu zen. Eguraldia lagun, lazkaotar asko eta askok kirol pixka bat egin zuten euskararen alde.

Korrikaren inguruan Kulturaldia ere antolatu da Lazkaon. Martxoaren 29tik api-

rilaren 7ra bitartean hainbat kultur ekitaldi antolatu dira herrian. Besteak beste, apirilaren 6an, ostirala, arratseko zortzietan Irene Hurtado Mendieta egileak 'Goierriko eta Tolosa Hegoaldeko hizkerak' liburua aurkeztuko du Udaletxean. Eta kulturaldiari amaiera emateko, Txiste afaria antolatu dute larunbat gauerako Lazkaomendin.

Josu Konde, jaietako egitarauaren azala

San Prudentzio jaiak ere berehala direla eta, dagoeneko hasi dituzte prestakuntza lanak. Egitarauaren azala erabakitzeko, lehiaketa antolatu



"Korrikaren lekukoa eraman zuen San Benito/Lazkaoko ikastolako ikasle batek."

zuen udalak. Martxoaren 27an bildu zen Kultur Batzordea, eta aurkeztutako 17 lanen artean, Josu Konde lazkaotarrarena hautatu zuten egitarauaren azalerako. Pintura akrilikoz mihise gainean egindako lan batekin irabazi du Josuk lehiaketa. Zorionak Josu!

Ikusentzunekoa Maizpiden

Kultur ekitaldi gehiagorekin jarraituz, ikusentzunekoa antolatu dute apirilaren 25, asteazkenerako. 'Munduari itzulia 17 urtetan, belauntzian eta familian' izenburupean, Santiago Gonzalezek itsasoko bizimoduaren nondik norakoak kontatuko ditu. Emaldia iluntzeko bederatzi-tan izango da Maizpide eus-kaltegian.

Kronista berria

Amaitzeko, hemendik aurrera, Lazkaoko kronika idazteaz ni, Oihana Sarasola, arduratuko naiz. Beraz, norbaitek Goierritarran kaleratzeko albistiren bat iza-nez gero, abixatzea eskertu-ko nuke. Agur bat eta eske-rrik asko.

Txerrizaleneko haurren erakusketa

Udaletxean bertan apirilaren 3tik 11ra, 'Txerrizalene ba-serriko tailerreko haurren erakusketa' izango da ikusgai erakusketa aretoan. Bixi-tatu nahi dutenetzat, arratsal-deko bostetatik zortzietara egongo da zabalik, hurrengo asteazkena bitartean.

Oihana Sarasola

Ikastolako ikasleak El Salvador eta Indiarekin

San Benito ikastolako DBHO-1-eko etikako ikasleek elkartasun kanpaina baten bidez bilketa egin dute. Bertan bildutako dirua El Salvador eta Indiako hondamendietan kalte-turik suertatu diren biktimentzat izango da. Lortutako 84.000 pe-zetak (edozein urtetako beste kanapainetan bildutakoa baino gehiago) konfidantzazko gobernuz kanpoko erakunde baten bitartez bidalia izango da.

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

**Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia**

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
☎ 943 88 92 87 **BEASAIN**

**LAZKAO
GARAJEA**



**RENAULT
AGENTZIA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO


Kubako bidaietan berezitasuna

**Koba
Buses**

Madril-Habana-Madril
80.000 pta.
35 egun

Elosegi, 17 **LAZKAO**
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

Autowag, s.a.




☎ 943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepeidea, 419 Km **BEASAIN**



Arabar Errioxako ardoa eta metxeroak salgai Kilometroak-77ko argazki zaharrak



Duela 25 urte Beasainen egin zen Kilometroak 77 jaiaren argazkiak bildu nahi ditu Kilometroak 2001eko lantaldeak. Batzuk bilduak dituzte dagoeneko, baina argazki erakusketa polit eta txukun bat egiteko, gehiago bildu nahi dituzte.

Beraz, argazkiren bat baldin baduzue, Beasainen, Kilometroak 2001ek duen bulegora eraman ditzakezue. Euskadiko Kuttaren gainean dago bulegoa. Izen-abizenak eta telefonoa azalduz, erakusketa bukatutakoan, argazki guztiak itzuliko dira.



Kilometroak 2001 ardoa

Elosegi Ardoak enpresaren eskutik, Kilometroak 2001 markako ardoa salgai dago Gipuzkoako tabernetan. Arabar Errioxako ardoa da, beltza, eta urtekoa. Tabernetan ardo berezi bezala salduko da. Kilometroak ardoa eskura daitekeen tabernetan, txarteltxo adierazgarria egongo da agerian jarrita.

Ardo honen salmentatik aterako den etekinaren zati bat Kilometroak 2001entzat izango da.

Beraz, topa egin Kilometroak 2001en alde! Hori bai, neurritz edan!

Kilometroak 2001 metxeroak

Kilometroak 2001eko logotipoa daramaten metxeroak salgai daude. Momentuz, Beasaingo eta Lazkaoko tabernetan daude eskuragai, 150 pezetaren truke.

Askatuak saskibaloit taldearen gonbidapena

Martxoaren 25ean, Askatuak eta Caja Bilbao taldeen arteko partidaren izan ziren Beasaingo Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoak, Askatuak saskibaloit taldeak gonbidaturik. Kilometroak 2001en zabalkundea egiteko aprobetxatu zuten, besteak beste, Kilometroak jaiko materiala salgai jarri. Ikusleen artean hainbat kamiseta ere zozketatu ziren. Askatuak taldeko lehendakariari, Iñaki Almandoz, ere oparitu zioten Kilometroak 2001 kamiseta. Partida amaitutakoan, ikasleek, jokalariekin argazkiak atera zituzten, baita sinadurak bildu ere. Partidaren atsedendian, Kilometroak 2001eko kanta lagun zutela prestaturiko koreografia plazaratu zuten. Giro ona jarri zuten beasaindarrek Gaska kiroldegian.

Itxura denez, gainera, zorte ona eman zioten Askatuak taldeari. Saikapeneko azken postuan joan arren, 4. doan Caja Bilbao taldeari irabazi baitzion, partida ona jokatu.



Andramendi, Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.

E-posta: beasain@ikastola.net



Tel/fax 943 88 96 17

Etxebizitzak

salgai

➡ Ezkio-Itsason etxe adosatua salgai. 2 solairu (116 m²), garaiea, estudioa (63 m²), terraza eta lorategia. 943725914 - 943 037609.

➡ Idiazabalen etxebizitza salgai. 70 m²koa. Berria, ekipatua, 2 logelakoa. 16.500.000 pezeta. 627869700.

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Ganbararekin. Dena berritua. 943806404.

➡ Etxebizitza salgai Ikaztegietan. 100 m²koa. 943651353.

➡ Beasainen 90 m²ko etxebizitza eta garajea salgai. Mobleztatua eta eguteraan. 943884744 edo arsuaran@euskalnet.net

➡ Etxebizitza salgai Beasaingo Esteben Lasa kalean. Ganbara txikiarekin. 943027162 943027298 943291554.

errentan

➡ Urbasaren magalean etxea errentan ematen da asteburu eta zubiatarako. Guztiz ekipatua. 958539381.

Ibilgailuak

salgai

➡ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

➡ Honda VFR750 motorra salgai. Ondo zaindua. 350.000 pezeta. 943674920. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Cady motorra salgai. Beltza. Egoera onean. 20.000 pezeta. 943162510. Asteburuetan deitu.

➡ Mendi bizikleta, Orbea Sherpa, salgai. 25.000 pezeta. 943886532. Beñat. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.

➡ Toyota Camry autoa salgai. Ondo zaindua. 500.000 pezeta. 943883106. 19:30etik aurrera deitu.

➡ Aprilia Racing errepideko motorra salgai. Tabi eskapearekin. 2 kasko, aseguru eta kandadua barne. 943806421.

➡ Yamaha Aerox scooterra salgai, gorri-beltza. Egoera onean. Egurdietan deitu. 943884207.

Bestelakoak

salgai

➡ Besaulkiak (siloiak) salgai. Bata, ohea egiten dena, 3 plazakoa eta beste biak, banakakoak. 50.000 pezeta. 19:30etik aurrera deitu. 943161355.

➡ Aspes hozgailua salgai. 1,12 m.ko altura, 0,55 m.ko zabalera, 0,55 m.ko sakonera. 6 hilabetez erabilia. 20.000 pezeta. 943886033. Joxe.

➡ Akordeoia salgai. Borsini, Convertor 3+4 ahots. Basetti, 4 mentonera, 11 erregistro eskuin eskuan, 4 erregistro ezker eskuan, bajo bikoitza. 943884302. Oroitz Maiz.

➡ Kiwi biologikoak salgai, baserritik bertatik salduak. 943161945.

➡ Errepideko Peugeot txirrindua salgai. Erabili gabea eta merke. Gaez deitu. Joseba. 943885547.

➡ Mitsubishi Monteroren llantak salgai. Aluminiozkoak eta 15". Oso gutxi erabiliak. Prezio interesgarria. 639644314.

erosi

➡ Txanpon zaharrak erosi edo aldatuko nituzke. 639822790.

Garajeak

salgai

➡ Garajea salgai Beasainen, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

Animaliak

salgai

➡ Lanean dakien euskal artzain txakurra salgai. 943885102.

➡ Urte t'erdiko aharia salgai. 943885102.

Lana

eskaerak

➡ Ikaztegietako Ostatu taberna-jatetxearen ustiaketa emateko lehiaketa bidezko kontratazioa. Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 17an bukatuko da. Informazio gehiago, 2001eko martxoaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko bulegoetan.

➡ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943886243.

➡ Emakume edo neska euskaldun bat behar da Ordizian ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943161273, 19:00etatik aurrera deitu.

➡ Miami tabernan asteburuetan lan egiteko neska bat behar da.

➡ Neska bat behar da tabernan zerbitzari lana egiteko. Derrigorrezkoa euskaraz hitz egitea. 696681181.

➡ Ordiziako Herrikoan langile bat behar da. Izena emateko, tabernan bertan, apirilaren 8ra arte.

➡ Emakume euskalduna behar da goizetan umea eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera 943161874.

ZINEA

LEGORRETA:

Apirilak 19, 'Caprichos del destino', 20:30ean, Herri Antzokian.

Apirilak 26, 'Asfalto' 17:00etan, 20:30ean, Herri Antzokian.

ORDIZIA:

'Hannibal'.

Larunbata 7: 19:30 - 22:15

Igandea 8: 19:30 - 22:15

Astelehena 9: 19:30

'Heroes fuera de orbita'.

Igandea 8: 16:45

antzerkia

BEASAIN:

Apirilak 6, Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleek 'Bajarse al moro' lana eskainiko dute, Usurbe Antzokian, 19:00etan.

ORDIZIA:

Apirilak 6, Muac taldearen 'Thelma y Louise', Herri Antzokian, 22:15ean. Sarrera 1.000 pezeta.

dantzak

BEASAIN:

Apirilak 8, Dantzari Txiki eguna. 11:00etan dantzarien desfilea eta 17:00etan, jaialdia Loinazko San Martin plazan.

Apirilak 22, Marea Brava Hondarribiko Merche eta Carlos Dantza eskolako taldea, Loinazko San Martin plazan, 17:00etan.

musika

BEASAIN:

Apirilak 7, Makrokonzertua, Kiroldegian, 22:30ean: Carlos Segarra, Redhouse, Mal de Ojo eta Sinred. Dohainik.

Apirilak 8, Loinatz abesbatza, Musika Eskolako abesbatza eta orkestraren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 20:00etan.

Apirilak 21, Arrasateko Alegria de la Sierra taldearekin musika jaialdia, San Martin plazan, 23:00etan.

Apirilak 21, Dr. Robert bakarlaria, Usurbe Antzokian, 21:00etan. Sarrera 1.000 pezeta.

ORDIZIA:

Apirilak 7, Bermeo eta Ordiziako Santa Ana abesbatzen kontzertua, 20:15ean, Eliz Parrokian.

Apirilak 8, Oroith abesbatza, Parrokian, 20:00etan.

bertsoak

GABIRIA:

Apirilak 7, Osinalde bertsolari txapelketa, Osinalde elkartearen. Bertso-afaria 20:30ean. Bertsolariak. Iñaki Apalategi, Gorka Ostolaza, Itziar Izagirre, Ekaitz Goikoetxea, Ainhoa Agirreazaldegia eta Alaitz Sarasola. Afarirako txartelak, 943884259 telefonoan.

ZEGAMA:

Apirilak 6, Amezti elkartearen bertso afaria: Iker Zubeldia, Ekaitz Goikoetxea eta Alaitz Sarasola.

diapositibak

BEASAIN:

Apirilak 6, 'Kanada' J. Jau-regiren eskutik, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

Apirilak 20, 'Pirinioak' J.L. Hernandezen eskutik, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

Lili
loradenda

Ezteiak, zentroak, koroak,
lore lehorrak, balkoiak....
Zaldizurreta 3 behe, Beasain 943 888149

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 943 88 35 81
BEASAIN

GABINETE PSIKOLOGIKOA

ARPE

Depresioak
Harremanetarako arazoak

Beldurrak
Antsiak
Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Pedro Jose Landagutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

erakusketak

BEASAIN:

Apirilaren 8ra arte, Jubilatuek eginiko lanen eskulanak, Usurbe antzokian.

Apirilaren 13ra arte, Fernando Zubiriren akrilikoak, Aterpe tabernan.

Apirilaren 14tik maiatzaren 4ra arte, Ginoren argazkiak eta olerkiak, Aterpe tabernan.

Apirilean zehar, Euskal Herriko tximeleten argazkiak, Iñaki Mezquita 'Txete'ren eskutik.

Apirilean zehar, Gema Arrugaetaren argazki erakusketa, Igartza jauregian.

ORDIZIA:

Apirilaren 6ra arte, Patxi txiki artistaren pintura eta eskultura erakusketa, Barrenan.

Apirilaren 20tik maiatzaren 18ra arte, Jean-Luc Labat artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

XXX. Osinalde bertso sariketa Gabirian

Bihar, apirilak 7, XXX: Osinalde bertso sariketako finala jokatuko da Gabiriako Osinalde Elkartean. Aurretik hiru kanporaketa jokatu dira Idiazabalen, Aztirian eta Ordizian. Saio bakoitzetik bina bertsolari sailkatu dira finalerako. Hauek dira sei bertsolari gazteak: Iñaki Apalategi, Gorka Ostolaza, Itziar Izagirre, Ekaitz Goikoetxea, Ainhoa Agirreazaldegia eta Alaitz Sarasola. Hiru goierritar izango ditugu beraz, lehian: Beasaingo Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxea, eta Ordiziako Alaitz Sarasola.

Afariaren ondoren izango da lehia. Afaria arratseko 8,30etan hasiko d. Afarian parte hartu nahi izanez gero, ize-na aurretik eman behar da, 943884259 telefonoan.

SEGURA:

Ekaina bitartean, Rafa Berasategiren argazki erakusketa, Atsedenen.

Dr. Robert, Musiketan

Musiketan programaren barruan, Dr. Robert eskoziarraren kontzertua izango da Usurbe Antzokian, apirilaren 26an, gaueko 9etan. Robert Howardek The Blow Monkeys taldearekin ezagutu zuen arrakasta 80.eko hamarkadan.

Duela 9 urte, Robertek bere disketxea sortu zuen, 'Flatlands' eta honekin grabatu zuen diskoan folka eta doinu elektrikoak uztartzen dira.

Kontzerturako sarrerak 1000 pezeta balio du eta aurrez eros daitezke.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak:
Martxoak 25: Urdaneta-Pagoeta-Aia.

GOARDIAKO FARMAZIAK

Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.
Apirilak 7-8: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587
Apirilak 14-15: Atorrasagasti
(Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882934.
Apirilak 21-22: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

GESTORIA Biok

ASEGUROAK


- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

Olagi Sagardotegia

Egurdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



IKASTE AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- * Unibertsitate-maila
- * Batxilergoa
- * DBH
- * ...

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena - idazmena
- * Kalkulua, logika
- * Testu lanketa

ESKOLA LAGUNTZA

- * Maila eta arlo guztietan

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitez!

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko Zistertar monjak eta Astotxo jaia

Lazkao herrian bi monasterio daude: Benediktar gizonetzkoena eta Zistertar emakumezkoena. Bi ordena ordezkatzan dituzte, baina enbor beraren bi adar dira. Aita bakar bat dute: San Benito. San Benitoren enborretik sortu zen zistertar adarra XII. mendearen erdialdera. Klunyo benediktar monjeak botere asko eskuratua zuten eta San Benitok bere Errege-lan lekaideei markaturiko idealetik gehixko urrundu ziren. Klunyo zenbait lekaide ez zegoen ados monasterioan egiten zen bizitzarekin, eta lekaide bizitzaren eraberritze bat egitea erabaki zuten. Roberto, Esteban eta Alberiko lekaideak izan ziren eraberritzaile hauek. Beren proiektuak ez zuen indarrik hartzen eta ia galtzeko zorian zegoelarik, Bernardo izeneko gazte bat iritsi zen Citaux-eko monasteriora beste hogeitau lagunekin.

Hil zorian aurkitzen zen txingar monastiko huraugar handi bilakatu zen denbora gutxian, eta Europa guztia sutu zuen Citauxeko monasterioan pizturiko lekaide bizitzaren espiritu berriak. San Bernardoren eraginez, milaka monasterio berri ugaltu ziren Europar barrena, eta bere eragina arlo guztietan nabaritu zen: eliz-bizitzan, liturgian, arkitekturan, eliz-musikan, nekazaritzan, gizarte bizitzan, politikan... Lekaide bizitzaren haize berriak laister jo zuen Euskal Herrian ere. Hala nola, Tuteran lehen-dabizi (1149) eta hemendik hurbil dagoen Tulebrasera leku-aldatuz (1157), emakumeentzat iberoar penintsulako lehenengo zistertar monasterioa eraiki zen. Gizonezko-



na, berriz, lehenengoa La Olivan (1149). Ondoren, berriz, Fiteron (1154), Irantzun (1176), urtean. Mende batzuk lehenagotik (VIII / IX. m.) Leiren lekaide benediktarrak bizi ziren. Nafarroako errege Teobaldo I.ak zistertar monjeak nahi izan zituen Leireko monastegirako. Aldaketa (1307) eztabaida, borroka eta odol asko kostatu zen. Baina azkenean erregeak lortu zuen bere nahia betetzea. Lekaide beltzak botarazi zituen eta aurrerantzean lekaide zuriak izan ziren Leireko monasterio-riko maizter berriak.

Gipuzkoako bakarra

Gipuzkoan lehenengo zistertar monasterioa eta bakarra, Lazkaokoa da. Doña Mariak eraiki zuen 1646. urtean. Doña Maria Don Antonio Oken-do, Erregearen Armadako Almirantearen alarguna zen eta 1658an zistertar jantzia hartu zuen berak sorturiko Lazkaoko monasterioan, heriotze aurrean profesa egin zuelarik, 1664ko martxoaren 7an. Bere seme bakar eta oinordeko zen Felipe de Oken-do hil ondoren fundatu zuen monasterioa. Hemezertzi urterekin hil zen gazte hau San

Astotxo

4

Famili santu eta Erodes zer du "Astotxo Egunak"? Aurten gertatu balitz bezela ikusi ditugu danak, jende eldua, gazteak geien, zoragarri egin lanak, arriturikan erriko eta kanpotik bildu diranak, "Astotxon" festa zer dan ez daki Lazkaon izan ez danak.

1

Milla seireun da berrogeitamar asi zuten konbentua, milla zazpireun eta amaseien zuten inauguratua, monjatzok bertan asi ziraden taldetxo bat elkartua, gaur hogei dira lan eta otoitz, goresmena ta kantua, al dan ondona nola serbitu Aita Benito Santua.

2

Monjetatikan dator "Astotxo", erria prest laguntzeko, iru mende ta erdia pasan gertakariz jarraitzeko, astoa leial Jose ta Mari eta Jesus serbitzeko, Erodes bera nola bildur zan bere kargua galtzeko, agindu zuen bi urtez beko Belengo aurak iltzeko.

3

Meza santukin mojetan asi grazik "Astotxo" egunai, meza ondoren salda doanik artu nai luketen danai, konbentuan bertan salda artuaz denak arreba ta anai, kanpon zegoen pesta ikusiz kontuak esanez lasai, oleak ere nai dutenentzat jarrita zeuden salgai.

Bernardoren deboto handia baitzen eta amak semearen

5

Asto leialak salbatu zion bizia Seme Jesusi, famili santu ura Belendik eraman baitzun iesi, eta Erramuz Jerusalemen Jesus arturik nagusi giza txarkeriz eriotzarako gurutzean zuten josi, au ikusita badu gizonak astongandik zer ikasi.

6

Talde batean Zistertarrak da bestean Benediktarrak, bi konbentuen zaindaritza du Aita Benito bakarrak, beraren bidez artzen dituzte laguntzak eta indarrak, bi konbentuen alkar-bizitzan arbola baten adarrak, santu aundiak osa ditzala guztion gure bearrak.

7

Prailetatikan monjataraino ba omen dute tunela, garai batean jende artean itz egin oi zan horrela, pentsatzen degu au jakitea oso ondo datorrela, Aita Rufino buruari guk galdetu diogu onela, eta esan du lasai juateko erakutsiko duela.

hezurrak monasterioan gordeak zitezen nahi zuen. Mo-

nasterioa fundatzean, Inozenzio X.a zen Aita Santua eta Felipe IV.a Espainiako erregea.

Monasterioa fundatu zuten lehenengo monjak bost izan ziren. Ama Maria Jesus, Doña Mariaren ahaidea zen eta Herceko (Rioja) monasteriotik etorri zen eta bera izan zen abatesa fundatzailea. Beste laurak Valladolideko Santa Ana monasteriotik etorri ziren.

1650. urtean hasi ziren gaurko monasterioa eraikitzen eta 1716an inauguratu zuten ofizialki. Bitartean, monjak bi etxetan bizi izan ziren, gaur "Andres Kalen" kokatuak daudenak, guztiz eraberrituak.

Ihesi

1794. urtean "prantsestea"-rengatik monjak arrisku handian aurkitzen zirelako, eta gotzaiaren aginduz, monasterioa utzi beharra izan zuten, Valladolideko monasterioan babesteko, hauxe baitzuten, hain zuzen, beren monasterio ama. Hemen egon ziren hamahiru hilabetez, Lazkaon orduko alkate Juan Zeberio-ren gutuna hartu arte, herrira itzultzeko arren eskatuz, zeren lazkaotarrek ezin eraman baitzuten haien ausentzia eta berriro monjako kanpaiak entzuteko irrikatzen zeudelako. Monjak, itzuliko bidean, Beasainera iritsi zirela jakin zutenean, Lazkaoko hiru elizetako kanpaiak dantzatu zituzten, eta txistu eta danborra joz egin zieten harrera. Monjek beren komentua hutsik aurkitu zuten, baina hondatu gabe. Kanpoan egon ziren denbora guztian konbentuko atezain izan zen San Benitoren irudiak ongi zaindu zuen etxea, nahiz eta saiatu ziren batzuk monasterioa gaixoe-txe edo kuartel bihurtzen.

1808. urtean utzi zuen bigarren aldiz komunitateak



monasterioa Napoleonen gerra zela eta. Hilabete bat egon ziren kanporatuak, baina komentutik oso hurbil, gaur arte zutik iraun duen Orobione izeneko etxean. Dirudienez, komentua kuartel bihurtu nahi zuten, baina gauzak ez ziren horretaraino iritsi.

II. Munduko gerratean komunitatea prestaturik egon zen monasterioa uzteko, baina Jainkoari esker, ez zen beharrik izan. Harrezkero, Lazkaoko monjak (hogeiren bat) izualdirik gabe bizi dira bere monasterioan, eguneroko otoitzari eta lanari emanak. Lekaima bezala, beren egin-kizun nagusia liturgi-otoitza da. Horretarako hartzen dituzte egunaren ordurik onenak, Eliza osoaren izenean otoitz egiteko, Jainkoari gorespenak abestuz eta mundu guztiaren alde erregutuz. Gaur monjak beren esku-lanetik bizi dira. Garai bateko doteak e.a., gaur ez du zentzurik. Eguneroko lana dute bizitzeko diru-iturri ezezik santifikatzeko bide. Beren lanen artean hauek aipa daitezke: liburu-enkuadernaketa, arropa jostea (jada utzia), arropa garbitzea, ordenagailuko lana eta baratze eta sagastiko lana. Lazkaoko monjek ondo betetzen dute Ordenako goiburu edo lema hau: "Ora eta labora" = Otoitz eta lan.

Patxi Telleria

Astotxo festa

Monasterio honen sorreratik datorren jai polit bat ospatzen da Lazkao herrian: Astotxo festa. Herriak izen horrekin ezagutzen eta adierazten du guztiz erlijiosoa den jaiaren edukia edo muina. Astotxok du protagonismoa herriarentzat. Asto baten gainean doa Andre Mari, altzoan bere sabeleko haurra, Jesus duela, eta Jose denen aurretik, astoa erramaletik eramanez. Horrela irudikatzen dute urtero monjak salbamen-misterio hori, Maria, Jesus Haurra eta Joserekin, Ejiptora ihesi joan zenekoa alegia. Misterio

hau Elizak ospatzen zuen Eguberri ondorengo igande batean, baina Vaticano II.a Kontzilioak eginiko liturgiaren eraberritzean, misterio horren oroipena liturgi-egutegitik kendu egin zuen. Lazkaoko monjak urte batzutan ospatu gabe egon ondoren, eta herritarren desira eta eskabideari jaramon eginik, eta Erromako Kultorako Kongregazioaren baimen idatzia eskuratu ondoren, berriro ospatzen hasi ziren eta halaxe jarraitzen dute.

Hasiera-hasieratik bada monasterio honetan Nazaretoko familiaren triptiko bat, Herodes erregearengandik Ejiptora ihesian irudikatzen duena. Misterio honenganako jaiara sendotzeko eta zabaltzeko, kofrafi bat sortu zen jada 1652. urtean, izen honekin: "Andre Maria Birjina desterratuaren esklabutza". 1652. urtean, "Brevis" edo idazki labur baten bidez, Inozenzio X.a Aita santuak onartu zuen eta 1757. urtean Iruñeko gotzaiak Kofradiaren Erreglak eta Konstituzioak onartu zituen. Kofradikoek bete-behar batzuk dituzte. Besteak beste, hauek dira aipatzen direnak: Meza santua entzun eta elizkizunetan parte hartu Monjen elizan...; behartsuak etxean hartu...; Prozesioetan parte hartu...; Aldareko Jaunari lagundu prozesioetan, gaixoei elizakoak eramaterakoan...; Bekatariren bat bide onera ekarri...; ezjakinari Jainkoaren hamar aginduak eta salbatzeko behar dena erakutsi...; Errekizko obrak egin... Egintza on hauek betetzen dituzten kofradikoei, Aita Santuak zenbait indulgentzi edo barkapen urte ematen dizkie: Barkamen osoa kofradian izena ematen duten egunean, aitortuz eta jaunartuz; Barkamen osoa heriotzako orduan, aitortu eta Elizakoak hartuta; Barkamen osoa urtean behin, aitortuz eta jaunartuz eta Astotxo egunean (Efifania ondoren igandean) Zistertarren eliza edo kofradeen kapera bisitatuz eta otoitz eginez; Zazpi urte eta zazpi berrogeiko barkapen San Joan Ebanjelaria, Santa Ana, San Jose eta San Benitoren jaiegunean, aitortu eta jaunartuz eta otoitz eginez. Guzti hauek eta gehiago Inozenzio X.a Aita Santuak emandako idazkian aipatzen dira.

Astotxo jaiak berrikuntza haundi bat hartu du azken hamarkada honetan. Misterioa ez da eliza barruan bakarrik ospatzen, baita herriko kale eta enparantzan ere. Hamaiketako meza nagusi eder bat izaten da Zistertarren elizan. Aldarean eta inguruko koruan benediktatzaile lekaide eta zistertatzaile lekaimeak. Herritar apaizak eta apaiz gonbidatuaren batzuek ere parte hartzen dute Mezan. Eliza lazkaotar kristauz gainezka. Kanpoan bizi diren lazkaotarrak maite dute jai hau, ez dira gelditutako etorri gabe. Lazkaoko koralak eta Easo koraleko gregoriano kaperak ere parte hartzen du meza-kantuetan.



Segurarrak 1967an

Eleuterio Ugaldek utzi digu argazkia. Daniel Alustizaren ezkontzan ateratako argazkia da, 1967ko martxoaren 26an.

Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: Jose Urbizu, Roke Telleria, Benanzio Ormazabal, Daniel Alustiza, Agustin Legorburu, Luzio Imaz, Mariano Elorza eta Marzelino Aldanondo.

Behean: Angel Aristimuño, Ignazio Goikoetxea, Tomas Elorza, Seberiano Etxeberria, Manuel Imaz, Juan Ugalde eta Eleuterio Ugalde.



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



frutas
amatriain

tel 943 80 11 77
Zurbano kalea 22, behea
20214 Segura

**Preso eta
iheslariak etxera!**

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**



KENDU S. Coop. Ltda.

**Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05

ARMAIRUAK NEURRIRA

%20

URTEMUGA ESKAINTZA



Armairu aurrealde eta barrualdeak erosteagatik, Apirilean %20ko deskontua eskaintzen dugu DEKO-OLABERRIAren lehenengo urte muga ospatzeko.

● Era guztietako soluzioak egur, laka, ispilu...akaberetan.


● Irekitze sistema desberdinak: irristatzailea, eraigarria, tolesgarria...

● Irudimen handiko antolamenduak oinetako-altzarietan, esekitokietan...

DEKO-OLABERRIA

CARREFOUR OLABERRIA Galeria Komertzialak

AURREALDE ETA BARRUALDEAK
NEURRIRA



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN



BAKAS
MODA

Miss Sixty
Jocomola de Sybilla
Bill Tomade
L'Altra Moda
Paulinha Rio

Killah Babe
Custo Barcelona
Silvia Rielle
Liu Jo
.....



Tel: 943 88 79 92 - Garagarza plaza, 3 - ORDIZIA

AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER1452/2/00



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA